



GOIERRITARRA

Antzarrak festara



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.

Egurrezko egitura tratatuak

Tel: 629 46 95 26 Faxa: 943 16 10 32

Maiuz Industrialdea, 26. pab.

ORDIZIA

**Edozein motatako
teilatutako egiteko
prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar**



AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

LAZKAOKO

FESTETAKO

GIROA

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!

☎ 943 88 20 29
Elosegi, 5 LAZKAO

GERRIKO TABERNA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak

☎ 943 88 99 43
Elosegi, 16
LAZKAO

ESTANKO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*


Elosegi, 17
LAZKAO



TABERNA

☎ 943 88 7197
Uhaitz, 2 LAZKAO

ZELATA TABERNA



Giro ezin hobea!

Uhaitz, 1 LAZKAO

ANSOATEGI HERRIKOA



*Jaietan ere
falta direnak gogoan*

☎ 943 88 68 52
Elosegi, 15 LAZKAO

GURUTZE TABERNA

SANPROINTZIO JAIETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



KIROLDEGI TABERNA

*Eguneroko menua
Afariak
Pintxoak
Bokatak*

Euskadi Enparantza z/g
☎ 943 16 19 66 LAZKAO

GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

☎ 943 88 77 40
Areso, 6
LAZKAO

DORRAO TXIKI

TABERNAk
*Festa zoriontsuak
opa dizkizue!*

Elosegi, 4
LAZKAO

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Jon Ordoñez, Joseba Etzezarreta,
Eduardo Albizu, Agurtzane Biku-
ña, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxa-
ga, Aitziber Murua, Josune
Amondarain, Mari Jose Alustiza,
Patxi Telleria eta Antonio Berasa-
tegi.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Etxegarateko proiektuaren
maketa ikusgai Ordizian**

Etxegarate mendatearen bi-
koizketarako 3. fasea maketan
ikus daiteke apirilaren 26ra bi-
tartearen, Ordiziako Barrena jau-
regian. Erakusketa ibiltaria da
eta maiatza eta ekainean Idia-
zabal eta Beasaina eramango
dute, herritarrek proiektua eza-
gutu dezaten. Maketa, argazki
muntaiak eta bideoa ikus dai-
tezke erakusketan.

Proiektuaren arabera, gaur
egun dagoen bidea, Gasteizko
norabidean igotzeko erabiliko
da. Idiazabal alderako errepi-
dea berria egingo da, oraingoa
baino altuagoa. Obra bereziak:
bi tunel, 250 eta 180 metroko-
ak, bi bidezubi ere egingo di-
tuzte, eta Urtsuarango lotunea.

Hirugarren fase hau, men-
datearen bikoizketa, Agroman,
Gedi, Contrucciones Amena-
bar, Construcciones Suquia eta
Asfaltos Naturales de Campe-
zo enpresek osatutako UTEK
egin du. Aurrikusita zegoen
baino 10 hilabete lehenago la-

nak bukatuta egongo direla
adierazi dute, 2001. urterako.
Baita aurrikusita zegoen baino
kostu merkeagoan ere:
7.478.591.109 pezetan. Maia-
tzaren 15ean hasiko dituzte la-
nak.

Bikoizketaren bigarren fa-
sea bukatzeaz dago eta egural-
diaren baitan badago ere, apiri-
laren bukaerarako edo maia-
tzaren hasierarako lanak buka-
tuta egotea espero du Antton
Jaime Gipuzkoako Diputazio-
ko Errepide eta Garraio diputa-
tuak.

GOIERRITARRAren 155.
alean hainbat lur-jabek sarrera-
irteeren inguruan azaldu zuten
kexuaz galdegin genion Antton
Jaime. "Hainbat alegazio
egin da eta batzuk onartu egin
dira, eta orain lanak hasiko di-
renean, berriaz ere sarrera-irte-
eren arazoa aztertuko dugu,
beste neurri batzuk hartu be-
har baldin badira, hartuko di-
ra".

BOTA BERTSOA



Jon Lasa

Lizarra-Garazi

*Doinua: Hamarreko
nagusiko edozein.*

Akordioak azken boladan
badu zer esana pranko
Lizarratikan Garaziraino
dago ibilbide asko
eta bidean aurkitzen diran
mugak gainditu beharko
baina bidea egin dezagun
baita gure onerako
eta batera joan gaitezen
euskaldunak geraldako.

Lizarratikan Garaziraino
bakearen lemapean
behar ezkeron konpontzen gera-
gu ere geure artean
Madril aldetik nahi izan arren
edukitzea oinpean
haien antzeko txotxongiloak
dira guretzat kaltean
abertzaleok seguru gaude
lizarraren gerizpean.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Etxegarateko lurjabeeri erantzuna

Etxegarateko "hainbat lurjabek" izenpetuta, GOIERRITARAKO 155. alean agertu zen idatziaren aurrean, zerbait esan beharrean aurkitzen gara. Nahiz eta, gure iritzian, idatziaren mamia Foru Aldundiari zuzenduta egon, arazo honen inguruan gabiltzanak isilik egotea ez dugu uste bide zuzena denik, eta horregatik, gure iritzia ematera goaz, eta bide batez, badaezpada, Udal honen jarrera argitu.

Idatziak ukitzen dituen puntuak aipatuko ditugu. Alde batetik, "bideak harra-patzen dituen luraren prezioak". Foru Aldundiak, Gipuzkoan zehar beste hainbat obratan ordaintzen duen prezio berbera ari da eskaintzen Etxegaraten. Gure iritzia zera da, Aldundiak gutxiegi ordaintzen dituela lur horiek; baina, era berean beste burutapen bat ere badatorkigu, alegia, prezio hoberik ezin daitekeela lortu Idiazabal-en edo Etxegaraten baka-rrik, horrela gure kasua salbuespen bat izango litzatekeelako. Foru Aldundiak irizpide ezberdina ezartzen du Gipuzkoa osoan; eta irizpide horien berri badakite bai alderdi politiko, eta bai nekazal sindikatuek. Hori eztabaidatu eta aldaketaren bat lortu ahal izateko, Gipuzkoako Batzar Nagusiak dira lekuri egokiena. Uda-

lak ezer gutxi egin dezake arazo honetan.

Beste alde batetik, "gelditzen diren eremu eta terrenoen bide sarrera-irteerak". Etxegarateko 3. Faseko obrari dagokionez, horixe da Udal honen kexa nagusia. Terreno jabeek badakite hori; kontutan eduki behar da Udala bera dela, nabarmen, terreno jaberik haundiena.

Kezkatuta gaude eta gure kezka behar diren lekuan azaldu ditugu. Baina arazo honi irtenbide egokia aurkituko diogulakoan gaude. Segurantz osoa daukagu alde horretatik. Aldundiarekin harremanak baditugu eta birplanteaketa oso bat egin beharra dagoela eskatu dugu, hasi Jaso inguruan eta Etxegarateko gainerarte; eta agindu ere agindu digute.

Foru Aldundiak zergatik ez duen zehatzago erantzun orain arte? Arrazoi bat baino gehiago egongo direla pentsatzen dugu, baina nagusi-ena honako hau izan liteke: nahiz eta proiektuak garbi mugatzen duen zer obra egin behar den eta zer terreno okupatu, obra eraikitzaileek aldaketa haundiak aurkeztu dituzte beraien eskaintzetan. Litekeena da, obraren esleipenarekin batera, terreno expropiatu batzuk libre gertzea eta beste batzuk, aldiz, hartzea. Hori dena erabakitzen denean, sarrera-irteera guztiak aztertuko dituela erantzun digu Aldundiak.

Hala eta guztiz, proiektu- an badago oso interesantea den datu bat. Idiazabaldik Etxegaratera 9 kilometro daude, eta erdi bidean, Ur-suarango korapiloan, nora-bide aldaketa bat dago pentsatua; hala, erdibiderarte dauden terrenoen sarrera-irteera arazoa, Etxegarateko tontorreraino igo gabe kon-ponduko litzateke.

"Gauzak egiteko forma" ere aipatzen da idatzi horretan. Kritika hori Foru Aldundiari zuzenduta dagoela pentsatu nahi dugu, Udalak behintzat ez du zerikusirik. Udala bera ere beste edozein lur jaberaren pare tratatua izan da. Partikular askoren kasuan, eta batez ere laguntza eskatu dutenak, Udalak (pertsonalki neronek) lagundu eta aholkatu egin ditu, Aldundiaren aurrean partikularra defenditu.

Eta erabilitako "forma" egokiak izan diren edo ez: azken 12 urte hauetan eza-gutu eta ikusi ditugun forma berdintsuak izan dira (Arri-rango urtegitik uraren tuboa-ak pasatzeko expropiazioak, ur zikinen kolektorea pasatzeko expropiazioa, herri pa-reko bikoizketa garaioak, eta abar); hau da, afektatuei udaletxera dei egin, eskaintza mahai gainean jarri, ez-tabaidatu, epe bat eskaini erantzuteko eta traturik ez badago, 'Jurado de Expropiación' delakora bidali espedienteak.

"Erreflexio sakon bat eskatzen dizuegu kargu eraba-

kior eta politikoetan zaude-tenok, Etxegarateko bikoizketa dela bide, Idiazabalgo herri honen etorkizunean oinarrituta erabakiak har ditzazuela". Hau ere, Diputazioa begira dihoala pentsatu nahi dugu, baina isilik gelditzeak, askotan, interpretazio okerrak ekar ditzake.

Beraz, arazo honen aurrean, Udalaren iritzia eta zere-gina garbi azalduz bukatu nahi dugu. Etxegarateko bikoizketa errebindikatzek ez du esan nahi errebindikazio horren ondoren etorriko diren obren aurrean beste alderdi begiratuko dugunik; alderantziz, konfidantza osoa dugu idatzi honetan azaldu dugun kezka nagusiaren aurrean, terrenoen sarrera-irteerana, alegia, irtenbide egoki bat lortuko dugula Diputazioarekin batera. Esate baterako, ikus daiteke, momentu honetan herri pareko bikoizketan nola gelditzen ari diren ibilbidean dauden sarrera-irteera guztiak.

Dudarik ez, Idiazabalgo herriaren etorkizunean oinarritutako erabakiak hartu araztea eta defendatzea, inoren eginbeharra baldin bada, Udalarena dela, eta hortan ari gara.

Horretarako, Diputazioak duen ikuspegi edo interes orokorra eta terreno jabeek dituzten ikuspegi partikularrak uztartzen saiatuko gara.

Antton Irizar
(Idiazabalgo Alkatea)

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA

Urrutiko gerra

Behin eta berriro entzun dugu, gertu dago Kosovo, ber-bertan ia; gerra hotsa ere iritsi da gure-raino, ikusi dugu jendea hona-hara, gerrako sua bazterrik baz-ter.

Ezina dugu, ordea, beste gauza batzuek jabetzea. Badakit, adibidez, haien oinazea, haiena dela bakarrik eta ez gurea, hori seguru. 36ko gerrako jendeen mina bezala; hori gertuxeagotik ezagutu arren, harrezkeroztikoak garenok ezin dugu goxatu, nahita ere. Gehienez ere entzun edo irakurri.

Irakurri orduko egunkarian, nola, "astelehenean, uz-tailaren 27a zen, sartu ziren Beasainen indarka; izuga-rriak ikusi ziren, batez ere Porteriako langile auzoan. Hasieratik beretik, aurkitzen zituzten gizonezko guz-tiak preso hartu eta hiltzea izan zuten eginkizun, begi-ratu gabe bere aldekoak ziren edo ez. Guardia Zibilen kapitaina preso hartu eta animalia balitz bezala eraman zuten kanposantura; bidegabe eta tormentupean erabili ondoren, tiroka hil. Eta beste gizon batek protesta egin zuen automobil bat erretzen ari zirelako, arriskua ze-goela... nahikoa izan zen gizona hiltzeko. Era berean hil, 70 urteko zahar gizarajo bat bere etxean. Trenbide-ko langileenean ere; bat bere emaztearekin irten zen haien menean jartzeko asmoz. Bi tiro eta... Langile ko-operatiba ere erasotu zuten, hango jeneroak jo eta txi-kituz; emakume batzuek zer bait egin nahi izan zuten, baina alferrik fusilen aurrean."

Urruti dago gehienongandik 36ko hura, urruti Ko-sovo, urruti gaur bertako hemengo gerra eta gerratro-ak. Baina ezin, hala ere, bistatik kendu. Inondik ere, geureak ditugu.

Antonio Berasategi



Zer da beharrezkoa festetan ondo pasatzeko?



Oskar Alarcia
24 urte, langilea
lazkaotarra

Giroa. Jende asko ez baina daude-nen artean giro ona izatea.

Iñaki Belamendia
27 urte, udaltzaina
lazkaotarra

Jai edukitzea. Jai daukadanean, as-paldiko partez, lagunekin ibiliko naiz.



Iker Altuna
Arkaitz Urdangarin
20 urte, ikaslea eta langilea
lazkaotarrak

Giro ona, jende piska bat, dirua, go-go izatea eta tabernak.

Ainhua

ILEAPAINDEGIA

- ✕ Ezkontza orrazkerak
- ✕ Teknika berriak
- ✕ Manikura
- ✕ Makilaia
- ✕ Bibote eta bekain depilazioa
- ✕ Konplementuak

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

© 943 88 87 75

Elosegi, 17

LAZKAO



RENAULT

AGENTZIA

*Festa onak
pasa!*

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

ITXURRENE
T A B E R N A

Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...

☎ 943 885759 LAZKAOMENDI



INTXAURONDO
JANTZIAK

FESTAK
ONDO
IGARO!!!

Uhaitz, 3

☎ 943 88 08 40

LAZKAO

ZINEA

LEGORRETA:

'Abre los ojos'. Apirilak 26, 20:30ean, Herri Zineman.

ORDIZIA:

'Payback'. Larunbata 24: 19:30 - 22:15; igandea 25: 19:30 - 22:15; astelehena 26: 19:30.

'Babe, el cerdito en la ciudad'. Igandea 26: 16:45.

BEASAIN:

'Leyenda urbana'. Ostirala 23: 10:15; larunbata 24: 19:30 - 22:15; igandea 25: 19:30 - 22:15; astelehena 26: 19:30.

HITZALDIAK

ORDIZIA:

Maiatzak 5, 'Agenda 2000. Gipuzkoan: etorkizuna ezagutuz, etorkizuna irabazi' hitzaldia, Udaletxean, 21:00etan. Hizlariak: Iñaki Txueka Nekazaritza diputatua eta Jon Arruti Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako sailburuordea.

Goieniz:

Goienizek ziklo berria pres-tatu du, Alfred Hitchcocken jaiotzaren 100. urteurrena dela eta, 1929 eta 1939 bitartean plazaratu zituen lanekin. Zikloa osatzen duten sei pelikulak Ingalaterran bizi zen garaikoak dira. Abonoa 1.000 pezetaren truke eros daiteke. Ohi bezala, Usurbe Antzokian izango dira emanaldiak, gaueko 9,30etan.

Apirilak 27, '39 escalones'.

Apirilak 29, 'Chantaje'.

Maiatzak 4, 'Número 17'.

Maiatzak 6, 'Alarma en el expreso'.

Maiatzak 11, 'Asesinato'.

Maiatzak 13, 'Ricos y extraños'.

BERTSOAK

GABIRIA:

Apirilak 24, Osinalde bertsolari gazteen txapelketa, Osinalde elkartearen. 21:00etan afaria, ondoren bertso-saioa. Ikusi Gabiriako kronika.

LAZKAO:

Apirilak 23, Aitor Mendiluze, Joxe Munduate, Mikel Mendizabal eta Jokin Sorozabal bertsolariak, Kiroldegian, 22:30ean

ANTZERKIA

GABIRIA:

Apirilak 25, kale antzerkia: 'Eskeletoak!', Goloka Park antzerki taldearen eskutik. Antzokian 17:00etan.

ORDIZIA:

Apirilak 23, Miedomeda antzerki taldearen 'El sueño del pato' obra, 22:15ean, Herri Antzokian, Antzerki Garaiaeren barruan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN

Apirilaren 25era arte, Maider Urretabizkaiaeren pintura erakusketa, Usurbe antzokian.

Apirilaren 27tik maiatzaren 9ra arte, saskigintza erakusketa, Usurbe antzokian.

Apirilean zehar, 'Euskal musika' erakusketa Zinema tabernan. 1960. eta 1972. urteen arteko euskal singleen azalak erakusgai.

ORDIZIA:

Apirilaren 23ra arte, Joxemari Telleria segurarraren pintura erakusketa Barrenan.

MUSIKA

BEASAIN:

Apirilak 30, musika eskolako ikasleen kontzertu pedagogikoa Usurbe antzokian, 15:00etan.

LAZKAO:

Apirilak 23, Erramun Martikorena, 22:30ean, Kiroldegian.

Apirilak 23, Etzakit, plaza, 24:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

GABIRIA:

Apirilak 23, Javier Fernandez mendi filminak, Kultur Etxean, 20:00etan.



IBAI-ONDO

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g **BEASAIN**



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15



GESTORIA Biok
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierrri, 12
behea

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

IKUSENTZUNEOAK

ORDIZIA:

Apirilak 29, Porrotx pailazoarekin merienda, Barrenan, 17:00etan. Sarrera dohainik.

Kurdistani buruzko jardunaldiak

Kurdistani buruzko jardunaldiak ari dira egiten Komite Internazionalista eta Askapena egunotan.

Ordizia: apirilaren 23tik 25era, erakusketa, Barrenan. Apirilaren 25ean, kurdutar folklore taldea eta Jakintza dantza taldearen emanaldia, kaleetan.

Lazkao: apirilaren 23ra bitartean, erakusketa udaletxean.

Zaldibia: apirilaren 23ra bitartean, erakusketa Kultur etxean.

Beasain: apirilaren 23an, hitzaldia eta bideo emanaldia udaletxean, 19:30ean. Apirilaren 24an erakusketa Zubimuzu plazan, eta afaria eta antzerkia plaza azpian.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Txakurkumeak oparitzen dira, boxer eta pastor belga arteko kruzekoak. Julen. 943 672909.

☐ 1,20 metroko bi koltxoi eta somier berri salgai. 943 882156.

☐ Cocker Spaniel ingelesa eskaintzen da arraza hobetzeko. Pedigree onekoa. 943 886164.

☐ Gas-Gas 350 trialeko motorra salgai. 95. urtekoa. Oso gutxi erabilia. 943 886217. Silvia. Iluntzean deitu.

☐ Zilar koloreko Monty bizikleta salgai. Nahiko berria eta ondo zaindua. Prezio interesgarria. 943 889634.

☐ Opel Omega CD, SS-X, kotxea salgai. Urdin metalizatua. Kristal jasogailu elektrikoa. Itxiera zentralizatua. ABS. 4 atekoa. Gasolina, superra, berunik gabea. Kaseta opari. 575.000 pezetan. 943 161072. Jesus Mari.

☐ Motorra salgai: Mecatecno. 49 cc. Jon. 943 690721. Iluntzetan deitu.

☐ Ford Escort XR3 salgai, despiezerako. 943 88 8081. 13:00etatik 13:45era deitu.

☐ Bi kanpin-karro salgai. Egoera onean. Oso erraz montatzen dira. 943 883724. 19:00etatik aurrera deitu.

☐ Compaq ordenagailua salgai. Prozesadorea eta pantaila, biak bat. Oso leku gutxi behar du. Prezio onean. 14:00etatik aurrera deitu. 943 187364.

☐ Estetikako aparagailuak salgai. 943-885513. Arratsalde edo gauez deitu.

Lana:

☐ Pertsona helduak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko 28 urteko neska eskaintzen da. Esperientziaduna. Interesatuak dei 943 160126 telefonora

Bestelakoak:

☐ Urrezko katea galdu nuen apirilaren 5ean, Zaldi-biako Akapulkotik Gaztelura bidean. Pergaminozko txintxilarioa dauka. Aurrealdean Lander dauka idatzita eta atzealdean Aitziber. 943 888205.

☐ Ikaztegi-tako Zubiaurre tabernaren aurrean giltza sorta bat aurkitu zen eta herriko Udaletxean daude. 943 653329.

☐ Düsseldorf aupair bezala lan egiteko norbait behar da, hilabete batzuetarako. Beharrezkoa da oinarritzko alemaniera jakitea. 670 737402 (Stefan).

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Apirilak 24-25: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain) 943880587.

Maiatzak 1-2: Jauregi (Santa Maria, 2- Ordizia) 943160949.



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120

**Joan Iturralde, 5
BEASAIN**

Unibertsitate maila:

- ✓ Ingeniaritza Teknikoa
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Kimika

Langileentzat:

- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak
- ✓ Fakturazioa...

Oposaketen prestaketa:

- ✓ Nola landu
- ✓ Test-ak
- ✓ Psikoteknikoa

Hautoprobetako azterketak:

- ✓ Eskola graduatua
- ✓ lanbide heziketa
- ✓ Selektibitatea
- ✓ 25 urtetik gorakoentzat

Nork ez ditu ezagutzen Dionisio Amundarain eta berak egindako lanak irakasle, ikasle eta euskaldunen artean? Euskeraren seaska biurtu dun Lazkaotik asita.

1930ean Itsasondon jaioa, amar urte arte artzaia zuen bere aitari laguntzen artzai izan ondoren, 10 urterekin Lazkaoko monastegian sartu zuen estudioak eta preparazioa egitera, len ardiaren artzain izan bezala, orain kristauren artzai izatea lortu arte. Beraz, fraile bertan; Parisen eta Erroman bere ikasketak burutu ondoren filosofian lizentziatu arte. 'Etor', 'Gero', 'Uzei' eta 'Zeruko Argia'n itzulpen lanak egin eta zenbait artikulatu idatzi ere bai. Lazkaon euskaldun jende kezkatu asko zegoenez, Gau Eskolak sortzen lenengotakoa zen. 1952an Beneditarren komentuan Zipitria Elbira asi zen euskerak irakasten; tartean zuen Dionisio ere. Gero, fraile eta beste jende batzuk ere lan aundia egin zuten Alfabetatze Euskalduntze Mugimenduan. Preparazio orren aziari esker Ikastolaren sormenadator; or ere azitik eta landaretik frutua zetoerrelarik. Gauza pilpilean zegoen eta jende asko lanerako gogoarekin eta Dionisio Amundarain puntatik tiratzeko prest.

Diru lorpena eskuratuz, lenengo Antsotegi: guenean 6 etxebizitzarekin, beran taberna eta alkarte bat 180 sozioarekin, ta erdian liburu denda bat duela, etxebizitzaren azpian eta tabernaren gainean. Gerriko izenarekin, taberna ta alkarte, erdian bionbo batekin; astelenetik ostiralera tabernan sartzen diran euskaldun berriko soziedadeko euskaldun zarrekin euskera zarrean itzezin al izateko; bertan musaldiak eta zenbait ekintza ospatzeko munduko alde guztietako jendea etortzen denez; adibidez, musean arituta nago ni, lau lagun ta beste iru amerikano; punta banatakoak ziran, galdezka asi nintzanean.

Jendea ezin kabiturik ikusita, HABEk eskeintza bat egin zuen Goierri guztia izenean; HABEren zuzendaria Txabarri zuen, Lazkaon irakasle ibilia, ta ondo ezagutzen zuen bertako mugimendua, ta barnetegi baten berarra zuela konturatu zuen. Non egingo

Dionisio Amundarain

zuen kontua: Beasainen, Ordizian ala Lazkaon. Beasainek bela eman zuen amore, baña Ordizia ta Lazkaoren artean zegoen duda, baña azkenik Lazkaon egin zuen, ala erabaki zenez atzenean. Izane nun egongo zuen ba? Artzai txabola, ardiak eta artzaia dauden lekuan ezipada? Dionisio Amundarainen babespean ezik?

Orrela barnetegi bat egitea lortu zuen, Maizpide Euskaltegia izenez. Bere kurrikuluma: 124 ordu eta Gerriko 2 pisu alokatu; 170 bazkari, gosari ta afari (azken bi aukerak gorabehera geiaxeagokin ibiltzen dira). Goierri inguruko beste jende bat ere bai, egunero etxeratzen diranak. Lanerako 6 sukaldari, 20 irakasle, 3 garbitzaile eta beselako ofizialista eta gauzain.

Orrezaz aparte emen egiten diran ekintzak ere aitatzeakoak dira: mus txapelketak aste barruan, bertso saioak, itzaldiak eta milla ekintza; barnetegirako ezezik kanpora, errira, ere zabaldu oi da kultura festa giroa eta erri baten bizia.

Len aiatatu gabe utzi ditudan Dionisio Amundarainen ekintzak eta lanak jarriko ditut orain. Maizpide Euskaltegiko zuzendaritza eta Elizen Arteko Bibliaren itzulpenetarako lan taldearen kordinatzailea, Euskeraren Aholku Batzordekide 1989an izendatu zuen Ardantzaren lendarikariak, IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública) edo HAEE (Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea).

Euskaldun berritze ortatik pasa diran jauntxoak or dijoazkizute; lista bat zer jende motatakoak pasa diran ikusteko. Eta aurrera ere orrela jarraitzen du. Pierre Molères, Baionako gozaina; Eduardo Vallejo, Gernikako al-

katea; Karlos Garaikoetxea, EAKo; Patxi Ormazabal, EAKo parlamentaria; Alberto De Lorentzo, HBko Mahai Nazionalekoa; Felipe Uriarte, mendizalea; Urko, abeslaria; Joantxo Koka, esku-pilotaria; Koteto Ezkurra, erremontista; Teresa Calo, aktorea; Alberto Barandiaran, Egunkariako kazetaria; Txema Vitoria 'Txiribiton', pailazoa; Hiromi Yosida, Japoniako idazlea; Xabier de la Fuente, ETBko kazetaria; Nikolas Xamardo, EHUKo irakaslea; eta Suzuko Tanura, Euskaltzain urgazlea. Irakasle ospetsuak ere izan dira: Arantxa Artza, EITBko kazetaria eta Patxi Zubizarreta idazlea.

1

Dionisio gauza aietan ez da izandu nagia. Diru lorpenak eskuratzane ibili zuen begia. Berari esker eginak dira, izan delako trebia, Antsotegi ta Gerrikorekin Maizpide Euskaltegia.

2

Dionisiok beti izan du gure euskeraren kezka ondo pentsatu, landu ta egin, ibili gabe ieska. Berari esker Lazkaon ikasten ainteste mutil da neska. Esan liteke Lazkao dala euskeraren seaska.

3

Emen dijoa jaun gorenekin osatua dagon lista: gotzain eta politikoak, mediku ta masajista, lege gizon ta andereñoak eta aintbat deportista ertzainak eta sukaldariak eta amaika artista.

4

Orra Maizpide eta Antsotegi, oien artean Gerriko. Auek ezean ainteste jende etzan onuntz etorriko, ta denak emen biltzen gerade euskera zar ta berriko. Auek ezean Lazkao etzan aint animatu jarriko.

Patxi Telleria

ERREZETA



Ane Otegi
Pipas jatetxea
Lazkaomendi

BIZKOTXOA

Osagaiak (neurritzat jogurt ontzia hartuta): 4 arraultza, 2 neurri azukre, 3 neurri irin, neurri bat esnea, neurri erdia olio, royal sobre bat.

Arraultzak azukrearekin nahastu eta ondoren irinarekin eta royallarekin. Ondoren esnea eta olio gehitu. Dena ondo nahastu.

Laberako ontzia gurina eta irinarekin igurtzi, oreka bota eta labean sartu ordu betez 180 gradutan.

AHOLKUA



Mari Jose Alustiza
Jos & Bel ileapaindegia

Ileapaindegi munduan, beste gauza askotan bezala, aukera handia eskaintzen da, ikusi besterik ez dago kalean bestela. Neurri guztiak, motxeneetik luzeeraino, nahiz eta erdikoak izan gehienak egiten direnak. Koloreak zer esanik ez eta orrazkerak era edo modu guztietakoak. Momentua edo gunea kontuan hartuta, mozketa bat bi era oso ezberdine-

Forma eta itxura

tara orraztu liteke, modu sinpleneetik, sofistikatueneraino.

Jendeak askotan galdetzen digu: zer eramaten da? edo zer egin dezaket? Denetik eramaten da. Baina momentu bakoitzean tendentzia batzuk markatzen dute gehiago. Orain arte ile lixoa asko ikusi badugu, badirudi aldaketa bat badagoela: erabat kixkurrera ez bada ere, forma edo mugimendu gehiagokoak. Forma hauek lortzeko beharrezkoak ditugu moldeatu edo permanenteak kasu gehienetan.

Ile motz-motza ere modan dago, flekilo markatuekin. Estilo hauek ondo eramateko ezinbes-

tekoak ditugu gomina eta gelaren laguntzak.

Koloreak orain arte bezala puri-purian jarraitzen du. Kasu gehienetan tonuak bata bestearekin konbinatuz egiten ditugu efektu ezberdinak lortzeko.

Itxura aldaketari koloreak ematen dio bizia eta argitasuna. Kontuan hartuta lan mota hauek teknikoak direla, premiazkoa da ilea osasun edo baldintza egokian egotea. Horretarako ez da nahikoa ileapaindegian egiten dugunarekin; norberak etxean zaindu behar du, ahalik eta produktu egokiarekin. Profesionalen aholkuek baliatzea da segurtasun handienekoa.



LAZKAOKO
MAIZPIDE
euskaltegia
barnetegia

ALFABETATZEN; HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK; ALFABETATZE TEKNIKOAK, SAKONTZEN

6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASEAK BAKARRIK

- ✓ Uztaila: VI-30/VII-18 (6-12 urratsak bakarrik)
- ✓ Abuztua: 4-29 (6-12 urratsak bakarrik)
- ✓ Iraila: 1-26 (maila guztiak)

HABEren dirulaguntzaz.

MATRIKULA MAIATZAREN 7TIK AURRERA.

XXIII. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 943 88 92 31 - 943 88 92 32

LAZKAOKO SAN PRUDENTZIO JAIK

AGURRA



Lazkaoko
Udala

Udaberrian egunak luzatzearekin batera iritsi zaizkigu San Prudentzio Jaia. Aurtengo jaietan badugu berri pozgarri handi bat, hainbeste urtetan bila eta bila ibili ondoren, aurkitu dugu azkenean pake bidea. Pake bidea egitea denon lana izanik, lerro hauen bidez lazkaotar guztiok dei egiten dizuet lanketa horretan gogor eta tinko jardun gaituzten gure bake-ametsa inork eta inola ez dezan zapuztu. Eginkizun zail honetan lagun diezagula, zaindari dugun San Prudentziok.

Festa luze eta alaiak opa dizuet lazkaotar eta kanpotik etorrita gure artean izango zaituztegun guztiok. Alkatetzan nire azken urtea izanik, eskerrak zuen laguntzagatik eta ondo eginak ongi hartu eta gaizki eginak, benetan barkatu.



Alkatea: Inazio Estensoro



'Bakea eraikitzen, Euskal Herriak du hitza'

Erantzun oso zabala izan zuen Lizarra-Garazi itunaren sinatzaileek deituta apirilaren 12an 12:00etatik 13:00etara bitartean egin zen lanuzteak.

Aberri Egun bateratuak

Lizarra-Garaziko ituna sinatu zuten alderdi abertzaleek deituta, Aberri Egun bateratuak ospatu ziren apirilaren 4an, Goierriko herri gehienetan.

Juan Manuel Ros

Ordiziako alderdi sozialistako zinegotziak dimititu egin zuen martxoaren 25ean. Azken hiru hilabeteetan bi aldiz erasotu dute bere bulegoa.

'Euskal Herriko herri mugimenduaren gida'-ren aurkezpena

Maiatzaren 5ean, arratsaldeko 8etan, Ordiziako Barrena Kultur Etxean aurkeztuko da Zumalabe Fundazioak egin duen 'Euskal Herriko herri mugimenduaren gida'. Antolatzaileek aurreratu digutenez, herrietako taldeentzat oso interesgarria da. Era berean, Euskal Herriko herri mugimenduaren topagunea ospatuko da maiatzaren 15ean Donostiako Egiako

Kultur Etxean eta topagune horren aurkezpena ere egingo da.

Alzheimer jardunaldiak

Apirilaren 12an hasita Alzheimer gaixoen sendiarteko jardunaldiak izan ziren Ordizian. Esperientziak elkarrekin trukatzeko izaten dira jardunaldiok, sendabiderik ez duen gaixotasuna denez eta eguneko 24 orduetan gaixoak norbait behar duenez alboan.

Alzheimer gaixoen sendiartekoak Ordizian biltzen dira hilabeteko lehenengo eta hirugarrenengo asteazketan, 16:45ean jubilatuen etxean.



EGIren Aberri Eguna

Goierriko EGIk Aberri Egunaren bezperan ekitaldi berezia egin zuen Beasaingo Usurbe mendian, orain hiru urte hasitakoari jarraituz. Sua piztu zuten bertan. EGIkoek adierazi digutenez, Beloki eta Irimo mendietan ere ikus zitekeen sua.

Sendabelar ikastaroa

Naturalkik antolatuturik, Oiangu aterpetxean sendabelar ikastaroa izan zen apirilaren 17 eta 18an. Zorion Insausti eta Alberto Luengo irakasleek eman zuten ikastaroa. Helburua inguruko landare arruntenak ezagutzea, bereiztea eta bakoitzaren propietateak eta bereiztasunak jakitea.

Loinatz abesbatza txapeldun

Beasaingo Loinatz abesbatza txapeldun izan zen Zaragozako Ejea de los Caballeros herrian. Duela 7 urte ere lehenengo saria lortu zuten herri berean.

Philippe Ezkurra


Martxoaren 27an jokatu zen, Ordiziako Akordeoi txapelketa Lapurdiko Urruñako Philippe Ezkurra irabazi zuen.

Aurresku eta Doinu Zahar txapelketak

Martxoaren 27an eta 28an Beasainen jokaturako Aurresku eta Doinu Zahar txapelketako irabazleak hauek dira: 7-11 urte bitartekoan artean, Doinu Zahar txapelketan Ariane Tokero irabazi zuen eta Aurreskuan, Ekaitz Perezek. 12 eta 15 urtekoen mailan, Aurresku txapelketan Errenteriako Ibon Huarte izan zen irabazlea eta Doinu Zaharrean, Eider Mujika.

Joanito Dorronsoro

Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak ohorezko bazkide izendatu zuen Joanito Dorronsoro ataundarra. Gaintzan egin zen bertsozale eta harrezkero lan asko egin du bertsolaritzaren alde. Besteak beste, Zumaia bertso-eskolako sortzaile eta irakasle, 'Bertsotan' eta



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.



Konposgune

Josetxo Atin gabiriarrak eta Ramon Gaztelumendi erreteriarak sortu duten Konposgune S.L. enpresa martxan da. Martxoaren 31n Sasietako zabortegean egin zuten erakustaldia, nahiz eta enpresaren kokagunea Zerain izan. Landare hondakinak konpost bihurtuko dituzte Konposgunekoek eta batetik bestera ibiliko dira herriz herri, hondakinak sailkatu, txikitu, garbitu eta fermentatzen uzteko. Goiekiren enpresa berriak sortzeko ideien lehiaketako irabazlea izan zen Konposguneren proiektua.

'Bertsotan II' liburuen egile eta 2.500 doinutik gora biltzen dituen Bertso doinuegia obra erraldoia egin ditu.

Lukax Dorronsoro

Ataundarrari Besarkada saria eman zion Euskal Aktoeren Batasunak. Goaz anzerki taldearen sortzailea da Dorronsoro eta bere ibilbidea saritu nahi izan zuen EABk.

Goierriko gai ugari 'Ostiaela'n

Ostiaela aldizkariaren 13. zenbakian Goierriri lotutako hainbat gai biltzen dira. Batetik, garai batean hainbesteko polemika sortu zuen Larraizko lehenengo gaupasa erraldoiaz erreportaia luzea dator. 1971ko urriaren 31n ospatu zen lehen gaupasa hura eta milaka gazte bertaratu ziren. Bestetik, Koldo Goitia beasaindarrak, Jon Arano itsasondoarrak eta bestek jorratutako beste zenbait artikulutan, gazte eta zaharren ikuspegiarte

kontrastea ere irakur daiteke. Eta azkenik, GOIERRI-TARRA aldizkariaren 1., 2. eta 10. zenbakietan eman ziren Zegamako despektiboan hiru entregen jarraipena egiten du Ostiaelak. Eburne eta Amaia Alustiza zegamarrek bildu zituzten 'Zegamako despektiboak'.

Ohiko lekuetan dago salgai Ostiaela aldizkaria: Ordizian Baga-Bigan eta Mujika liburudendan; Beasainen Mirentxun eta Bideluzeko kioskoan; Lazkaon Gerriko liburudendan eta Zaldibian Joxepane tabernan.

Aitor Perez

Zegamar txirrindulari afizionatuak bi lasterketa irabazi ditu, lehena Kantabrian eta bigarrena Duranan.

Iker Sukia

Ataundar pisu jaurtitzaleak Euskadiko marka berria jarri du 18,65 metroekin. Bere aurreko marka 7 zentimetrotan hobetzea lortu du Gazteizen.

Orekatzen taldea: Ordiziako Justizia Sozialaren Aldeko Mugimendua

Bizitza tokatu zaigun eredu ekonomiko honek konponezinezko kalteak sortzen ari da euskal gizartean baita gizakia-
ren parterik handienera ere. "Ekonomia ondo doa" mezua-
ren atzean beste errealitate zeharo desberdin bat izkutatzen
da. Sistema honek ingurugiroan konponezinezko kalteak
sortzeaz gain, langabezia, lanaren prekarietatea (istripuak,
aldi baterako lan kontratuak, e.a. gehituz), bazterketa eta po-
brezia ere sortzen ditu.

Arazo hauek irtenbiderik badutela pentsatzen dugulako Orekatzen taldea sortu da Ordizian. Gure asmoa honelako Injustizia eta Bazterketa egoerak ekidin daitezen gizartean erabateko aldaketa eman behar delaren kontzientzia hartu eta zabaldu nahi dugu. Honekin batera jasaten dugun politi-
ka neoliberal honen eragin edo ondorio txarrak eta kaltega-
rriak geldiaraziko dituzten neurriak bultzatu nahi ditugu. Arlo honetan, ETTen funtzioa, ordu extrak, esplotazioa, kontsumismo basatia... salatzea beharrezko ikusten dugu. Ekonomia gizakorragoa eta solidarioago bat posible dela pentsatzen dugu.

Ez gaude bakarrik: Injustizia eta Bazterketa gai honen inguruan talde asko dabilta aspaldidanik lanean: Hernanin Berdintzen, Barakaldon Berri Otxoa, Leioa, Erandio, Gas-
teiz eta hainbat lekutako Langabetuen Asanbladak, Nafarro-
an Gutun Soziaalaren aldeko 4 edo 5 Herri Ekimen, Biz-
kaian Gogoa Taldea.... Gu ere animatu eta ausartu gara, be-
harra ba dago eta!

Goierrri eta Euskal Herrian hain aberatsa den giza mugi-
mendu horren barnean beste aportazio bat gehiago gara: Au-
zo Elkarrekin, Gazte Asanbladak, Emakume Taldeak, Base-
rritarak, Talde Internazionalistak, Preso eta Senitarako
sostengu taldeak... Bakoitzak bere lanean sakonduz elkarla-
nean ere egiteko asko dugulakoan gaude.

Bistan da gauzak lortu daitezkeela. Dauden arazoak eza-
gutzen ditugu eta konponbidean zein urrats eman daitezke-
en ere, adibidez, ordu extren deuseztapena, astea 35 ordukoa
izatea, ETTengan kontrola izatea, etxebizitza sozialak alo-
kairuan bultzatzea, ondasunaren banaketa, emakume eta
gazteen aldeko bazterketa positiboa, soldata soziala e.a. Ho-
nelako proposamen batzu jada martxan dira Gutun Soziaala-
ren, Herri Ekimenen bidez edo Lan Harremanetarako Kon-
seiluan Sindikatu eta Patronalaren arteko akordio bidez.

Orekatzen taldeak justizia sozialaren aldeko jarrera eta
kontzientzia zabaldu nahi du. Gure lana, beste batzuren ar-
tean, Prekarietatea, Bazterketa eta Injustizia egoerak salatu
eta informatzea da konponbiderako beharrezkoak diren neu-
rriak har daitezen presionatuz.

Oharra: ea maiatzaren 21ko greba orokorra (35 orduko
astea eta soldata sozialaren alde) inoiz baino zabalagoa eta
sozialagoa egiten dugun.

Asteartero, arratsaldeko 7:30etan Ordiziako Gaztetxean
biltzen gara.

Orekatzen taldea

Sasieta: edukinontzi horiari buruzko sentsibilizazio kanpaina berria martxan

Sasieta Mankomunitateak edukinontzi horiari dagokion sentsibilizazio kanpaina hasi zuen apirilaren 17an. Herritarregana zuzenean iritsi nahi du Sasietak, ontzien bilketa zertan den ezagutzera emateko. Kanpainaren oinarria, kale-antzerkia eta bisitaldiak izango dira.

Edukinontzi horietan plastikozko eta metalezko ontziak eta tetra-brikak biltzen dira. Beasain, Lazkao, Ordizia eta Olaberrian 1994an jarri zen bilketa hau martxan baina Goierriko gainerako herrietara iazko udan zabaldu zen. 228 edukinontzi hori daude Goierri jarrita; 288 biztanleko edukinontzi bat. Bilketa mota honetan aintzindari izan zen Goierri Euskal Autonomia Erkidegoan. Gipuzkoako gainerako eskualde guztietan orain hasi dira edo laster hasiko dira bilketa honekin.

Edukinontzi horien material ezberdinak biltzen dira eta berziklatu ahal izateko sailkatu egin behar izaten dira materialak. Sailkapen hau egiteko Gipuzkoan dagoen planta bakarra Sasieta Mankomunitatean dago, Legazpin. Iazko martxoan jarri zen martxan lantoki hau eta lehe-



nengo urte honetan Gipuzkoa osoko 4.000.000 ontzi sailkatu dira. Bilketa hau hila-betetik hila-betara gorantz doa eta aurtun lehenengo aldiz 30 tonak gainditzea aurrakusten du Sasietak.

Urtarrila eta otsaila hila-bete txarragoak izaten omen dira bilketetarako. Hori dela eta, sentsibilizazio kanpaina berri bati ekiteko garai egokia dela uste du Sasietak. Ontzien bilketa erabat sendotzea eta emaitzak hobetzea du helburu kanpainak eta horretarako herritarrek bilketa zertan den ondo ezagutzea nahi du Mankomunitateak.

Kanpaina berezia egingo du, herritarrekin harreman estua eta zuzena bilatuz. Apirilaren 17an hasi zen kanpaina, eta maiatza eta ekainean egingo da kanpainaren zati handiena. Abuztuan eta irailean ere egingo da hainbat ekitaldi.

Kale-antzerkiaren egutegia

Apirilak 23: Seguran, arratsalde.

Apirilak 28: Ordiziako Maxi Eroskin, 9:30etik 13:30era.

Apirilak 29: Lazkao, 16:30etik aurrera.

Apirilak 30: Zaldibian, arratsalde.

Maiatzak 2: Idiazabal, 10:00etatik 14:00etara.

● Kale-antzerkia

Apirilaren 15ean aurkeztu zuen kanpaina berria Sasietak komunikabideen aurrean eta ez ohiko moduan gainera. Kanpainarako 'Behi bi's' antzerki taldeak prestatu duen kale-antzerkiaren zatitxo bat aurkeztu zuten. Emakumezko batek (Ane Garmendia beasaindarrak) edukinontzi horia aurkitu du kalean eta negar eta negar, jaten ez daki zer eman. Frutarekin probatu du baina edukinontzi horiak protestan jarraitzen du. Emakumezkoa prentsaurrekora azaldu zen informazio eske. Kristala emanez probatu zuten, baina edukinontziak ez zuen onartzen. Paperak ere ez zion batere onik egin. Plastikozko ontziak, tetra-brikak eta metalezko ontziak emanda pozik gelditu zen edukinontzia.

Antzerkia jendearen aurrean, kalean, merkatal zen-

tru handietan antzeztuko dute 32 saiotan. Jendearen partehartzea ezinbestekoa izango da eta bertan parte hartzen dutenei arkatzak gordetzeko edukinontzi hori txiki bat emango zaie opari.

● Bisitaldi kanpaina

Urtero 'Ingurugiro Heziketa Kanpaina' antolatzen du Sasietak eskualdeko ikasleentzat, Legazpiko Sailkapen Planta eta Sasieta Zabortegia ezagutzeko helburuarekin. Udaberriko kanpaina honetan, helduei zabalduko dizkie ateak, Artelatzen enpresaren eskutik. Materialak nola sailkatzen diren, material desberdinak eta ezaugarriak, nola berziklatzen den plastikoa eta zabortegian berreskuratu ez den zaborra nola kudeatzen den erakutsiko da. Bisitak prestatzeko herrietako talde antolatuekin harremanetan dira dagoeneko eta Mankomunitateak autobusa eta gidaria jarriko ditu. Bisitak dohainik izango dira eta bisitariak oparitxo bana jasoko dute.

● Berziklaketa gida

Ekain aldera gida berria buzeonatuko da Mankomunitateko herrietan. Gida honetan bilketen ezaugarriak eta gora-beherak adieraziko dira eta urte hauetan jendeak Sasietako lankideei egindako dizkioten galderak erantzuten saiatuko dira gida horretan.



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 88 95 76
ORDIZIA

- ✗ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✗ Berogailuak
- ✗ Iturgintza
- ✗ Zeramika erakusketa
- ✗ Bainuko altzariak
- ✗ Erreforma osoak



Ontziak Sailkatzeko Instalazioa

Zorionak!

Lehendabiziko urtean 4 milioi
ontzi berreskuratu ditugu.
Jarraitu horrela Goierri eta Urola Garaia



SASIETA
MANKOMUNITATEA



Gurekin konpainiarik onena aurkituko duzu

Zure aldean izango duzu beti informaziorik
profesionalena, telefono eta osagai aukerarik
zabalena eta gure zerbitzua.

Hurbileko Kontratua

Hil honetan alta emanez gero:

MoviStar-en

33 pta/min.
zure probintzia barruan.


10 ptas/min.
asteburuetan eta gaueko
9etatik aurrera.

Eta gainera

Konexio kuotari dagokion
zenbatekoa itzuliko dizugu*

(*) baldintzei buruz galdetu

Eskaintza hau 99/4/30a arte da baliagarria.movitel2000-en alta emanez gero



Mugikortasun Digitaleko Zentroak

Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89

Banatzaile ofiziala:

MoviStar

www.movitel.com

Jaietako egitaraua

Apirilak 23, ostirala:

16:30etan: Haurren arteko XII. xake lehiaketa, pilotalekuan.

20:00etan: Gerriko Ikerlan Sariketako 8. edizioko liburuaren aurkezpena.

22:30etan: Erramun Martikorena abeslaria eta bertsolariak Kiroldegian. Antolatzaile Lazkaoko Ekimena eta laguntzaile Lazkaoko Udala.

24:00etan: Etzakit musika taldearekin dantzaldia, plazan.

Apirilak 24, larunbata:

10:00etan: Jubilatuen ibilaldi neurtua, helmuga Lazkao Txiki Zelaian.

11:30etan: Haur alkate-alkatesaren ongi-etorria herriko gaztetxoei Udaltxeko balkoian, txupinazoa eta Zawopiko maskotaren aurkezpena, guztia Antzar Gazteak txarangak alaiturik.

12:00etan: Haurrentzako jokoak plazan.

13:00etan: Antzar Gazteak txarangarekin gaztetxoek kalejira.



16:00etan: Gipuzkoako talde arteko II. xake-txapelketa azkarra, San Benito ikastolan.

16:00etan: Kadeteen saskibaloitartidua, Kiroldegian: Lazkao-Tolosa.

16:30etan: Azkona pailazo taldea plazan.

17:30etan: Gaztetxoek arteko play-backa. Mozorro lehiaketa gaztetxoentzat.

19:30etan: Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

20etan eta 23:00 etan: Drindots.

23:30etan: Auzoetan Koxkola txarangaren emanaldia.

01:00etan: Helduen mozo-errotuen desfilea.

Apirilak 25, igandea:

9:00etan: Tolosako dultzaineroen goizeresia.

10:00etan: Gipuzkoako II. taldekako xake-txapelketa azkarra San Benito ikastolan.

10:30etan: Lazkaoko LVI. Txirrindulari proba.

12:00etan: Urrezko Aizkora txapelketaren Floren Nazabal Mikel Mindegian aurka, Kiroldegian.

12:30etan: Wu-Shu erakustaldia, Euskadiko taldearen eskutik.

16:00etan: Telma kale animazioa, plazan.

18:30etan: Gaztetxoek dandorrada.

Apirilak 27, asteartea:

18:00etan: Prudentzio Deunaren Ermitan Bezperako elizkizunak.

19:00etan: Buruhandiak, Antzar Gazteak txistulariekin.

23:00etan: Koldo Iparragire musika taldea.

Apirilak 28, asteazkena:

San Prudentzio eguna:

9:00etan: Tolosako Dultzaineroen goizeresia.

10:30etan: Prozesioa, herriko korporazioak txistulariekin, herriko zaindarien irudiari parrokitik ermitara lagunduko dio eta Oin Arin dantza taldeak agurra egingo dio.

11:00etan: Prudentzio Deunaren ermitan Meza Nagusia. Lazkaoko abesbatzak abestuko du eta Udal korporazioa bertan izango da.

13:00etan: Herri-kirolak. Olasagasti-Larretxea aiz-



Mundu-Bi

**BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK**

HIRIBARREN, 17
TfNOA.: 943 88 74 58
LAZKAO

*San Prudentzio jai
zoriontsuak!*



ZUREMOTO, C. B.

GAS GAS banatzaile ofiziala

Hiribarren Atze Poligonoa, 1
943 88 39 03 LAZKAO

Oilategia



*Eguneroko
arautza
ezin hobeak*

Jai zoriontsuak denoi!

943 16 09 71
Elosegi, 25 LAZKAO

kolariak, Zelai-Goenatxo II harrijasotzaileak eta Gabirondo-Esnaola-Lasa-Mujika trontzalariak.

16:00etan: Gorriti eta bere abereak.

17:30ean: Oin Arin dantza taldearen emanaldia, plazan.

18:30ean: Paleta goma txapelketako final aurrekoa eta finala, pilotalekuan.

20:00etan: Akelarre musika taldea.

Apirilak 29, osteguna:
Egun guztian haur parkea izango da.

9:00etan: Artisau eta barazki azoka, egun osoan zehar.

12:30ean: Koldo trikitixa eskolako ikasleen emanaldia, plazan.

16:30ean: Kale-antzerkia Behi Bi's taldearekin.



1950 urteko aurrekua. Julio Garmendia zen alkate.

19:30ean: XX. Sardinada plazan.

19:30ean: Antzar Gazteak txaranga.

Apirilak 30, ostirala:
Koadrila eguna:

11:00etan: Incansables txaranga.

11:30etan: Koadrilen arteko jokoak.

12:00etan: Hamabitakoa, jokoetan parte hartzen dutenentzat.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria, Kiroldegiko aterpean.

18:00etan: Incansables txarangarekin koadrila guztien kalejira.

20:00etan: Drindots.

23:00etan: Koxkola txaranga.

Maiatzak 1, larunbata:

9:00etan: VI. Arrantza lehiaketa Lareon, 14 urtetik beherakoentzat.

10:00etan: Goizeresia Antzar Gazteak txarangarekin.

10:00etan: Eskualdeko VII. igeri lehiaketa Kiroldegian.

11:30ean: Aldatz Gora fanfarrea.

12:00etan: XI. Makailu lehiaketa plazan.

16:00etan: Toka txapelketa, plazan.

17:30ean: XIV. Suelto dantza txapelketa.

18:30etik 20:30era: Aldatz Gora fanfarrea.

23:00etan: Zubizkitza alde-tik su artifizialak, Caballer pirokteniaren eskutik.

23:30ean: Paco Formoso eta bere Mariachia, Korridoak eta Charroak. Ondoren Orquesta Pasarelaren emanaldia, plazan.

ARRIARAN MERTZERIA
Haurren jantziak
Hirigoien, 12
☎ 943 16 06 82 LAZKAO

Jai zoriontsuak! Loradenda
EGUZKI-LORE
✓ Andregai erramuak eta erregaliak
✓ Kotxe eta eliz apainketak
AMAREN EGUNEAN, MAIATZAK 2, GOIZEAN ZABALIK
Hirigoien, 24
☎ 943 88 49 65 LAZKAO

DAMA
ILEAPAINDEGI-ak
Festa onak opa dizkizue!!
Hirigoien, 16
☎ 943 88 58 95 LAZKAO

PELLO BIDE GAIN HARATEGIAK
Jai zoriontsuak opa dizkizue
☎ 943 88 93 57
Mikelar, 1 LAZKAO

UNAI ARRANDEGIA
Ondo ibili festetan!
Gurutze, 4
☎ 943 88 79 33 LAZKAO

TAPIA
Instalazio elektrikoak
Ibabe Industrialdea, 18 ☎ 943 88 95 94
82 postakutxa LAZKAO

Garin OKINDEGIA
Hirigoien, 14 | Pl. Nagusia, 5
☎ 943 16 23 36 | ☎ 943 88 04 33
LAZKAO | ORDIZIA

BATZOKI TABERNA
Jai zoriontsuak denoi!
☎ 943 88 29 69 LAZKAO

GOIERRIKO ZURAK
Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.
Hiribarren, z/g
☎ 943 88 80 23 LAZKAO

SAN PRUDENTZIO JAIETAKO OROITZAPENAK, ANDRES BARANDIARANEN ESKUTIK:

Gazten beti gazte, bai lehen eta bai orain

Andres Barandiaran lazkaotarrak garai bateko San Prudentzio festak nolakoak ziren eta berak bizitakoak kontatu dizkigu erreportaia honetan. 73 urte ditu Andresek eta bere gazte denboran Elizak zuen garrantzia eta errespetua nabarmen utzi du bere hitzetan. Baina aldi berean, parrandarako indarra soberan zutela erakutsi digu. Gaztea beti gazte, bai lehen eta bai orain.

Elizkizunek garrantzia handia zuten garai hartan. Apirilaren 27an, San Prudentzio bezperak izaten ziren San Prudentzio ermitan. Arratsaldetan izaten zen meza erlikiarekin. San Prudentzio egunean, 28an, 11etan meza nagusia izaten zen. "Lazkaotar apaiz taldeaz osatutako meza izaten zen. Urtean lehenengo aldiz meza eman zuen hura izaten zen meza emale eta sermoilari".



Miren Armendarizek utzitako argazkia 1950 ingurukoa da. Prozesioa San Prudentziora iristen, ezkerreko txistularia, Jazinto Galarza segurarra da eta erdikoa Inazio Armendariz lazkaotarra.

Sermoilariak hizjario bat baino gehiago eragin izaten zuen. Andresek gogoratzen duenez, "Inazio Alustiza behin hasi eta noiz bukatu ez zekien. Jendea aspertuta egoten zen. Bazkaria hain luzea balu etxean!".

Anastasio Albisurekin gauzak aldatu egin ziren. "Anastasio Albisuk eman zuenean zoragarria izan zen benetan. Mezatatik atera eta jendeak bere aita zoriondu zuen semeak egindakoagatik. Aitak horrela erantzun zuen: 'hori ez duk ezer ama Merzedesek botatzen dituenen aldean'. Baina sermoi hura aitak prestatu zion semeari.

Gasteizko Seminarioan artxibatuta omen dago idatzi hori".

Orain 100 urte baino gehiago Albisutarrak jarritako usuarioarekin jarraitzen dute lazkaotarrek: sakristiko leihoan ardo goxoa gailatekin izaten dute.

Elizak errespetu handia zuen. Bi bitxikeria gogoratu dizkigu lazkaotarrak. Batek, Olaberriako Ertzilleko Zubiarraindarrei 10 pezetako multa jarri zioten idiekin Lazkaoko lurretan goldan lan egiteagatik.

Andresek berak jaso zuen elizaren zigorra, San Prudentzio bezperan mezataria ez jo-

ategatik. Hurrengo egunean, txirrindulari karrera zegoen unean, Elizan bertan zigortuta eduki zituzten bezperetara joan ez zirenak. "Ezin izan genuen Ezkerrak karrera nola irabazten zuen ikusi", esan digu Andresek.

Musika

Elizkizunak bakarrik ez ziren izaten ordea. Musikak tarte berezia izaten zuen. "Orain 70 urte Segurako txistulariek bezperatik 3 egun pasatzen zituzten kalejira, Prozesio, kontzertu eta kaleko etxe denetan jotzen zuten bazkalondorenetan. San Prudentzio egunean eta igandetan Beasaingo musika banda etortzen zen, 1930etik 1942ra arte".

Begiristain alkate zelarik, Lizarrako La Selvatana taldeko sei bat musikari festa guztietarako etortzen ziren. Taldearen izena bakarrik aldatzen zuten: Radio Club de Estella. "Baina errepertorioa berdina izaten zuten. 1976 bitartean etorri ziren hauek".

Zumarragako jazbanda etortzen zen urteak ere izan ziren. "Hauek paparrean ti-



Etxe - Zuri
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
☎ 943 88 20 49
OLABERRIA

Sagardoa txotxetik urte guztian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eraman-ekarriak

☎ 943 88 29 26
608 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO

OIARBIDE harategia

festa onak opa dizkizuegu

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
☎ 943 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15
☎ 943 16 05 16

kea jarrita kobratu egiten zuten dantza egiteagatik". Herrian ere bazen txistulari banda Inazio Armendariz buru zutela. "Hauek ere herriko festetan izaten zuten zereginna. Ondoren azaldu ziren berriak: Egan, Drindots, auek erritarrak, eta abar; gaur egun oraindik puntako dabil-tzanak".

Lazkao Txiki

Garaiko bertsolaririk onenak ezagutu ditu Andresek San Prudentzio festetan. "San Prudentzio bigarrenean 1943ko apirilaren 29an Lazkao Txikik lehendabiziko aldiz kantatu zigun San Prudentzioko pareta gainean, Basarri eta Saiburu zaharra aldamenean zituela".

Txirrindulari lasterketa

Txirrindulari lasterketak era-kartzen omen zuen jende gehiena Lazkaora. "Karrera ziklistak punta-puntakoak, lgo kategoriagokoak izaten ziren. Federiko Ezkerra 1936an irabazle; 1953an Jesus Loroño; Luziano Montero, Jazinto Urrestarazu, Vidaurretatarak; Olano bera ere 1992an Lazkaon irabazita dago".

Kirol gehiago ere izaten zen. Aizkolariak eta korrika-



Eifel Dorrearen irudiaren aurrean argazkiak ateratzera etortzen zen festetan Beasaingo Dominguin. Argazkikoak Eztatarrak dira: Inaxi, Rosali, Angel, Jose Luis eta Sabino.

lariak herritarrak izaten ziren. Pelota partiduak afizionatu onenekin izaten ziren.

Parrandak

"Indarra sobrante, baina geure galtza barruetan kabitzen ginen". Ordu bietan ixten zituzten tabernak. Migelene, Estankoa, Zufiriane, Karmenene, Manuelene eta Praila kaleko Mendiatarren tabernak zeuden herrian. Festetarako plazan jartzen ziren argiak ere orduantxe itzaltzen zituzten. Guardia Zibilak eta aguazilak herrian errepasoa egin eta kalean zebiltzanak etxera bidaltzen zituzten.

Gaztea beti gazte denez, bai lehen eta bai orain, Andresek gogoratu digu 1944. urteko San Prudentzio bigarrenean egindako 'axioa'. "Goizeko ordu bietan futbol partidua jokatu genuen Udaletxe aurreko plazan guztiz normala ez zen jazkeran: gantzontzilo eta alkandoraz. 2 ataundar baziran gantzontzilorik ez zutenak eta hauek ere taldeko ziren. Garai hartako gantzontziloak aurreko partea irekita zuten eta hor dantzatu ziren preskura hartuz gure zintzilikarioak. Karmenenen lan egiten zuten neskak balkoitik begira egon ziren". Urte hartan Aste Santuetan soldaduak sartu ziren herrian eta Udaletxeko arkupeetan kanoiak zeuden. Isuna edo multa jarri nahi izan zieten futbolarietara baina orduko 'letxeroari' esker, hark egindako gestioei esker, eze-rezean gelditu zen zigorra.

Dirua falta

Herriko festetako gauzarik bereziena jatordua izaten omen zen Andresentzat. "Nahiko arkume jateko irrikitan egoten ginen, urte guztian egoten ginen zain".

Dirua urri izaten zen, lanean hasi eta diru piska bat pilatzen hasten ziren arte.

Festetan etortzen ziren barraketan ibiltzeko ez zuten dirurik izaten. "Begira egon behar izaten genuen barraka pare baten aurrean". Ume zirela, Senpereraino joaten ziren tiobiboa zekarren kotxe zaharraren bila. "Tiobibo frantsesa izaten zen. Senperetik herriraino kotxearen atzetik etortzen ginen korrika. Tiro pitxioa ere etortzen zen".

Bakoitzari berea

Lehengo festak eta oraingo festak zeintzuk aukeran nahiago? "Gelditu gaitezen bakoitza geurearekin. Lehengoak lehengoekin eta oraingoak oraingoekin", erantzun digu Andresek. "Oraingo festak ikusita aldaketa handia dugu. Janez osatuta urte guztian, festa giro desberdina, erretira orduak ere beranduago. Neska-mutilen lastan goxoen bila arrapaztaka ibiltzen ginen lehen".

Gaztetasuna gaur daukagu lengotatik ezberdiña aiton amonen pentsamentuan dago sinistu eziña lengo garaitan egunez festa dantzatzu ariñ ariña ta oraingoak gauez dabilta egunez buruko miña oiengandikan urruti dago Jesukristoren dotriña.

LEKIM
HAROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎ (mugik.) 608 - 61 95 01

OSAKI

* Sendabelarrak
* Naturopata
* Masajista

Ana Mari Egea
Mikelar, 1 ☎ 943 88 93 62 LAZKAO

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 88 26 31
Gurutze, 2 LAZKAO

LAGUNAK
AUTO-KONPONKETAK

Ibabe Industrialdea, 19 ☎ 943 88 91 51 LAZKAO

- ✖ Autoen konponketa orokorrean
- ✖ Gasolina eta diesela
- ✖ Norabide zuzenketa
- ✖ Olio aldaketak, koipeztaketak
- ✖ Gurpilak, zulatuak
- ✖ Diagnosiak

MARI JOXE MADARIAGA, GOIERRIKO EUSKAL ESKOLAKO DINAMIZATZAILEA:

"Elkarlana da gakoa"

Mari Joxe Madariaga Goierriko Euskal Eskolan 1990. urteaz geroztik buru belarri ari da, euskara eta euskal kultura indartzeko lanean. Jendea euskaraz alfabetatzeko eta euskalduntzeko helburuarekin sortu zen Euskal Eskola baina gaur egun lan hori euskaltegiek betetzen dutenez, kulturgintzaren arloan lan egiten du. Lazkao ikastetxe, euskaltegi, hainbat elkarte eta Udalarekin elkarlanean, ekitaldi ugari izaten da urtean zehar Lazkaon, beti ere euskaraz biziz.

Lazkaon dago kokatua Goierriko Euskal Eskola eta lanik handiena ere bertan egiten du. Euskararen erabilera eta euskal kultura bultzatzea helburu hartuta antolatzen ditu GEEK ekintzak. Lazkaon elkarlanaren bidetik lan egiten dute eta San Benito Ikastolak, San Prudentzio Ikastetxe Publikoak, Maizpi-



Goierriko gaiei buruzko liburutegia ari da osatzen GEE, Gerriko Ikerlan sarietari esker.

de eta AEK euskaltegiek eta Udalak, urtean zehar hainbat eta hainbat ekitaldi antolatzen dituzte. "Elkarlana giltza edo gakoa da, ekintzak aberasten, merketzen eta indartzen dituelako. Horren birtatez ari gara Goierri ber-tan beste txoko batzuetara iristen".

Goierriko Euskal Eskola-ren helburuak aldatu egin dira urteekin eta euskararen egoerarekin. "Hasieran; 70.eneko hamarkadan alfa-betatzea zuen helburu. Euskararen egoera parregarri zegoen eta irakaslerik ere ez zegoen. Hemen eskola bat sortu zen irakasleak sortze-ko. Hortik Gau eskola sortu zen eta jendea alfabetatzen eta euskalduntzen hasi zen.

Gaur egungo % 99 euskalduntzeko taldeak dira, alfa-betatzeko oso talde gutxi sortzen dira. Euskal Eskolak irakaskuntzako arloa erabat utzi zuen Maizpide eta AEK sortu zirelako. Izen berarekin jarraitzen du baina orain kulturgintza du helburu Goierriko Euskal Eskolak, maila guztietan hizkuntzaren normalizazioa bilatuz", argitu digu Mari Joxek.

Nahasketa

Izenak berak nahasketa ugari sortzen omen du. "Euskal Eskola izen horrek euskaltegiarekin nahastu du jendea eta bestetik, hemendik ateratzen diren ekintza askotan gai bezala euskara hartzen da. Eta orain gure helburua ez da hori. Euskarazko fun-

tzionamendua hartu nahi dugu gai. Txorizugarrien lehia-ketan esaterako, euskara edo bere erabilera izaten da gai nagusia. Txorimaloen gaia-ren helburua euskaraz idatzia izatea da", esan digu lazkaotarrak. Lotura hori luzera begira txarra izango dela uste du Madariagak, "monotonia da, beti gai berdina-ri bueltaka ibiliko ginateke eta horrek ez du aberasten".

Lazkao herri bizia

GEEri eta Lazkaoko hainbat talderi esker, festetan baka-rrik ez, urtean zehar ere herri bizi bat dela esan daiteke. "Euskal Eskolak horretara-ko bere lan zati bat egiten du, beste talde eta erakundeekin harremanetan. Herri asko-tan, jendeak herrian ez dago-ela ezer esaten du oso erraz. Zerrendatxo bat eginda talde bakoitzak urtean zehar zer antolatzen duen ikusita asko egiten da. Gauza gehiegi antolatzen ari garen irudipena daukat. Ondo antolatu gabe, zalapartaka antolatzen dira eta bukatutakoan balorazio-rik ez da egiten. Ekintza bat ondo edo gaizki atera den ez dugu aztertzen eta horren falta ikusten dut".

GAUR

KARROZATEGIA

Auto konponketa - margoketa

Festak ondo pasa!

Mendizabal baserria

☎ 943 88 86 09

LAZKAO

Euskalerria, 34
AZPEITIA - ☎ 943 816179
 Elozegi, 2
LAZKAO - ☎ 943 887490
 San Inazio, 17
BEASAIN - ☎ 943 889707
 Grazineberri-e
ATAUN - ☎ 943 180364
 Sta. Maria, 1
ORDIZIA - ☎ 943 162320

ERRATO
UNDI

Okindegia

Grupo Bateak
 SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Hirigoien, 12

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 608 57 91 92

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Elkarlanari garrantzia handia ematen dio GEEK, baina ez Lazkoako elkarlanari bakarrik. "Goierriko taldeon artean ere ez dago harremanik eta bakoitzak berea antolatzen du, inguruan zer dagoen ikusi gabe. Askotan ekitaldi asko egun berean izaten dira. Hitzaro euskara taldearekin eta Goieniz zine klubarekin harreman dextekoa dugu. Baina oso itxiak gara, bakoitzak berea egin eta kitto. Elkarlana eta bukerararterako balorazioa ez egitea faltan ikusten ditut".

Gerriko Ikerlan sariketa

1989-90. eneko ikasturtean sortu zuen GEEK Gerriko Ikerlan sariketa. "Sariketa honetan saritutako idazlanak argitaratzea zen helburu eta horretan saiatu gara hasieratik eta lortu ere lortu da. Goierri buruzko gaien liburategia osatzen ari gara", zehaztu du Madariagak. Dena den, aldaketak izan ditu sariketarak, diru arazoa tarteko. "Hasieran Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak hartu zuen kostua bere gain eta guretzat oso ona izan zen. Baina moztu egin zen diru-laguntza hori, azken batean argitaratzen diren gaiek ez daukatelako

harremanik sail horrekin. Kostu handiak dira eta orduan bi urtean behin sariketa antolatzea eta sariketarik ez dagoen urte tarte horretan idazlanak argitaratzea erabaki genuen. Horrela behintzat funtzionatu dezakegu. Sortzailea Goierriko Euskal Eskola da, gero Maizpide Euskaltegia elkartu zen eta geroago Udala. Hiruen artean antolatzen da eta GEE da koordinatzailea".

San Prudentzio jai haue-
tan, gaur, apirilaren 23an, 8. edizioa bi liburu aurkeztuko dira, iluntzeko 8etan: 'Joxe Otxoa Arin (1672-1743), Gipuzkera Literarioaren Aintzindari' eta 'Frantzisko Areso Tolosa (1869-1954), Euskal Etnomusikari Berreskuratua'.

GEEKo dinamizatzailak kexu bat azaldu nahi izan du lerro hauetatik sariketa honen inguruan Goierriko udalek duten jarreragatik. "Sariketa honetan Goierriko beste udaletatik diru-laguntzak lortzen hasi gara, baldin eta idazlanari buruzko gaia herrikoa baldin bada. Garbi daukagu Goierri mailako antolaketa dela, nahiz eta Lazkaotik abiatu eta Goierriko udal guztiek eman beharko luketen laguntza".

Mingainari tiraka

- San Prudentzio festetan gustokoena duzuna.

- Koadrilan egunean adibidez, koadrilak bere txaranga, trikitilari edo txistulariak ekartzen dituztenean izaten den poteoa. Kanean batetik bestera ibili, era bateko musikarekin bi salto egin eta hurrengoan beste bi.

- Batere gustatzen ez zaizuna.


- Lehiaketak antolatu eta jendea arrapatazka nola aritzen den jaten eta edaten.

- Bertsolariak Udaletxeko balkoian ala Kiroledegian?

- Udaletxeko balkoian izango balira ni zoriontsu, baina gaur egun ez da posible. Barrakak daude ondoan eta bertsolariak kantuan aritzeko ixiltasun minimo bat behar du eta neroni naiz lehenengo festetan ixiltasuna mantentzea kostatzen zaidana. Orduan, garai batean balkoitik aritzen ziren baina gaur egun areto itxi batean sartu eta nahi duena bakarrik joan dadila.

- Gai-jartzailea ere bazara. Gai-jartzaileak bertsolari frustratuak direla esaten da.

- Agian hala naiz. Nik ez nuen bertsolari izan nahi. Bertso-eskolan bertsoa lan-



tzen ibili nintzen eta gero aukera sortu zitzaidan halabeharrez eta mundu horretan sartu nintzen. Agian bertsolari frustratu izan naiteke nahiz eta helburu horrekin ez nintzen sartu.

- Bertsolari bat.

- Irazu.

- Musika talde bat.

- Bateriarik gabeko trikitilariak. Trikitixa eta panderoa, irrintzia eta kantua.

- Tabernarako musika bat.

- Rantxerak.

- Sueltoan ala agarrauan?

- Bietan, eta gainera asko.

- Oraindik non ez da izan zure panderoa?

- Ni joan naizen ia leku guztietan izan da. Gogoratzen ditudan bi leku polit: Urte Zahar gauean, basamortuko duna batean eta abuztuan Boliviako gatzadi batean, gatzegingurata.

GASTEIZ

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!!!

Hirigoien, 24

☎ 94388 05 83

LAZKAO

M. ARTOLA
MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g

☎ 943 88 79 30

LAZKAO

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

San Prudentzio jai zoriontsuak!

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

AMEBI



Sagardotegia

Sanprointzioak ondo pasa!


Apirilak 24, larunbat gaua eta
apirilak 30, ostiral eguerdia
trikitilariarekin alaituak.

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9

LAZKAO

Idiazabal gazta eta artzantza



Idiazabal gaztaren denboraldiaren hasiera

Karlos Argiñanok ebaki zuen denboraldiko Idiazabal gazta berria, apirilaren 7an Ordiziako Udaletxean egin zen ekitaldian. V. Artzai Eguna azoka bereziaren barruan izan zen hori. Juan Mari Arzak, Pedro Subijana eta Jose Juan Castillo sukaldari ezagunak ere bertan izan ziren eta Gaizka Macho gastronomo eta Idiazabal gaztaren bultzatzaile zenari omenaldia egi zitzaion.

Beasaindar sukaldari ezagunak adierazi zuenez, *"aurten-go gazta suabe-suabea eta jan erraza da, Idiazabal gaztak berezkoa duena. Horrela behar du, jendea etxera iritsi eta gazta jateko gogoa izatea. Eta hau oraingo gazta suabeekin posible da eta ez garai bateko gogor haiekin"*.

Goizean zehar, latxa arrazako aharien lehiaketa-erakusketa, gazta egite erakusketa eta ardi-mozte erakusketa ere izan ziren. Azokan zebilen jendearen harriurarako, garai batean Aralarra artaldeak nola eramaten ziren irudikatu nahirik, 7 artzai 3.000 ardi ingururekin pasa ziren Ordiziako kaleetatik.



II. Aralarko eguna maiatzaren 1ean Larraitzen

Maiatzaren 1ean irekiko da ofizialki Aralarra ganadua igozteko denboraldia, negua beheko herrietan pasatu eta Aralarko larreei atsedena eman ondoren. Aralarko larreak irekitzeko festa izango da Larraitzen, goizeko 10etatik aurrera. Enirio-Aralar Mankomunitateak, Aralar Parkeak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen du eguna.

Goizeko 10etan hasiko da festa. Txalapartariak eta trikitilariak izango dira giroa berotuz. Larre-behi, asto eta pottoken erakusketa ere izango da. Hiru erakustaldi berezi izango dira: abereen perraketa, ardi mozketa eta behorren markaketa.

Tripa betetzeko aukera ere izango da, taloak, sagardoa eta Aralarko gazta dastatu eta erosteko postuak egongo baitira. Begiristain ataundarrak eta Gorostidi amezketarrak bertso jarduna egingo dute.

Eguerdiko 12etan, Aralarko larreak irekitzeko suziria botako da.

Iazko edizioarekin alderatuz, aurtan bada berrikuntza bat Aralarko egun honetan: Aralarko artzain ohiei omenaldia egingo zaie.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Alpe

MASTER

Elektragaiak
Sukaldeko altzariak

Mariaratz, 4

☎ 88 86 84

BEASAIN

MUGAR

Argiztapenak



Gabon zoriontsuak igaro ditzazuela!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

MANUEL MINTEGI ARTZAINA OMENDUKO DA IDIAZABALEN MAIATZAREN 2an:

"Ardirik ikusi gabeko egunik ez daukat"

Manuel Mintegi omenduko dute maiatzaren 2an Idiazabalen ospatuko den Idiazabal Gaztaren egunean. Ursuarango Etxeberri baserrikoa da Manuel eta txiki-txikitatik artzain ibilia. Laster beteko ditu 75 urte eta oraindik ere 200 bat buruko artaldea dauka.



baina gehienez etxe inguruan ibiltzen zen.

Neguan izaten du artzainak lanik gehien. Udan la-saiago bai, baina negurako prestatu behar izaten da. "Udan prestatzen dugu negurako jana; alpapa... Udan ardiei begira egon behar izaten da. Beti izaten da zerbait, hanka puskaturen bat... Beterinario lana ere ikasi behar izan dut", esan digu Manuelek.

Gaztarik ez

Gaztarik ez du egin aspaldi-ko urteotan idiazabalarrak. Esnea Araiaiko gaztandegira

saltzen dute. "Horrela esnea dena aprobetxatzen da eta gazta eginez gero galdu ere egiten da. Gazta egitea da errazena, gero mantentzeko kamara onak behar dira. Bi on eta hiru txar ateratzen dira. Gaur egun jendea preperatzen aritu da eta gazta berdinagoak egiten dira. Teknika aldetik ere aldatu da. Diru asko behar da kamarak eta erosteko".

Idiazabalgo gaztaren fama badaki Manuelek nondik datorren: Atxurbiko belarra jandako ardien esnearekin egindako gaztatik. "Belar fina da Atxurbikoa". Garai batean artzainak asko ziren Idiazabalen, "gaur egun, gutxi eta zaharrak", dio.

Berezkoa behar

Artzain izateko odolean eka-rrri behar omen da. Orain artzain-eskola ere jarri dute. "Berezkoa duenak ikasi eta aurrera egingo du baina bestela ez dakit. Ofizio go-gorra da artzantza".

Idiazabal Gaztaren eguna Idiazabalen

Apirilak 29, osteguna:

19:30etan: 'Gaztaren dastaketa komentatua' delakoa, Axari Elkartearen.

Maiatzak 1, larunbata:

21:00etan: Herri afaria herriko elkarteetan (txartelak aurrez salgai elkarteetan).

Maiatzak 2, igandea:

10:00etan: artzainek gazta salmentarako postuak ireki-ko dituzte.

11:00etan: herriko artzai-
nek gazta egingo dute era zaharrera eta modernora.

11:30etan: ardi-mozte ikus-
kizuna futbitoko aretoan.

12:30etan: Erramun Marti-
korenaren kantaldia.

13:00etan: Manuel Mintegi
Aierbe artzainari omenal-
dia.

Arratsaldean: Profesiona-
len pilota partiduak, Igaron-
do Pilotalekuan.

Oharrak: Gazta debalde
dastatzeko aukera izango da
goizean zehar. Hainbat jaki
eta edari puesto ere egongo
dira eta eguna trikitilari-
ek giroa alaituko dute.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

LAZKAO

Iritsi dira Sanprontzioak, eta beraz, aukera ezinhobea du-gu lazkaotarrok irri eta alga-ra egun on batzuk pasatzeko. Festak iristearekin batera, gainera, ekitaldiak eta horre-lakoak ugarituz doaz eta he-rritarren arteko kirol txapel-ketak ere, bere amaierara heldu dira. Hauek dituzue, beraz, txapelketa horietako emaitzak.

Koadrilen arteko futbol txapelketa

Gurutze Taberna izan da aur-ten ere koadrilen arteko fut-bol txapelketako irabazlea. Aurreko larunbatean jokatu-tako finalean, Seapotok tal-deari 11-6 gailendu zitzairen. Hirugarren tokian, berriz, Zepok taldea gelditu zen Txafli boys taldeari penalti jaurtiketetan irabazi ondo-ren, partidua seina amaitu zen. Gurutze Taberna talde-ko Jose Ignacio Vicente 'Po-tto' izan da gol gutxien jaso dituen atezaina. Golegile onena, Andoni Mujika Sea-potok taldekoa.

Pala txapelketa

Lazkaoko pala txapelketa ere joan den igandea, hilak 18, amaitu zen. Dozenatik gora



Auzolana berreskuratuz

Badirudi, ohitura zahar asko bezelatsu, auzolana ere gutxi-tzen ari den elementu bat dela, noizean behin halere, lagun taldeak biltzen dira auzolanean lan egiteko. Horrela gertatu zen aurreko larubatean, hilak 17, Lazkaon bertan. Hama-bost bat lagun, 'Altaso' alderako bidea txukuntzen aritu zi-ren goiz osoan. Ohitura onei jarraituz, gainera, hamaiketa-ko eder batekin amaitu zuten auzolana.

bikoteren artean, Andonegi aita-semeak izan ganituen txapeldunak. Finalean Etor-Arnaz bikoteari 30-25 gailendu zitzairen partidu borrokatu batean. Hirugarren pos-tua Soraluze-Barandiaran bi-kotearentzat izan zen eta lau-garrena, berriz, Joxe eta Ekairantzat.

Liburuaren eguna

Gaur ospatzen da mundu osoan Liburuen Nazioarteko

Eguna. Lazkaon ere ekitaldi batzuk badaude antolatuta. Hauek dituzue egunean ze-har ikusgai dituzuenak.

Lehenik eta behin, Gerri-ko Liburudendan erositako liburu guztiek %10eko behe-rapena izango dute. Egunean zehar, berriz, liburu irakur-ketak egingo dira. Megafo-nia bidez, plazatik entzun ahal izango dira liburu des-berdinen pasarteak. Herriko hainbat lagunek idatzitako

idazlanak ere irakurgai izan-go dira horretarako espreski jarritako mahaietan, nahi iza-nez gero ere eskuratu ahal izango dira.

Arratseko 8etan Udaletxe-ko Areto Nagusian, VIII. Gerriko Ikerlan Sariketako libu-ruen aurkezpena egingo da. Informazio gehiago Joxepa-ri, GOIERRITARRA hone-tan bertan, eginiko elkarriz-ketan aurkituko duzue.

Ekimenaren jaialdia

Aurten bigarrenkoz, Ekime-na taldeak jaialdia antolatu du Sanprointzio jaiei hasera emateko. Iaz bertso jaialdia izan genuen, eta aurten, ber-tsolariak eta abeslari bat na-hasean.

Abeslaria Erramun Marti-korena baxenafartarra izango dugu. Kantari bikain honek ordubete inguruan gozatu ederra emango die gure bela-rriei. Bertsolariak ere, punta puntakoak izango dira, Aitor Mendiluze, Mikel Mendiza-bal, Joxe Munduate eta Jokin Sorozabal. Denak gonbidatu-ta zaudete, gaur gaueko 10,30tan izango den jaialdi honetara.

Urko Irastorza



NEGUERUELA
BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA

☎ 943 16 08 30
Hirigoien, 12 LAZKAO

ONDO PASA!
GERRIKO
S. A.
liburudenda

- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

Elosegi, 16 ☎ 943 88 65 00 - Faxe: 943 88 79 71 LAZKAO



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

TELEFONOAK:

Lazkao: 943 88 72 99
Beasain: 943 88 18 96

GABIRIA
Osinalde bertso txapelketa apirilaren 24an

Bihar, larunbata, apirilak 24, jokatu da XXVIII. Osinalde bertso txapelketa, egunotan herrian ospatzen ari garen kultur astearen barruan. Hiru kanporaketa jokatu dituzte 18 bertsolari gaztek eta finalera 6 iritsi dira: Arkaitz Goikoetxea oiartzuarra, Jokin Uranga azpeitiarra, Oihane Perea gasteiztarra, Ekaitz Goikoe-txea beasaindarra, Estitxu Eizagirre hernaniarra eta Joseba Gojenola berriatua-rra. Gaueko 9etan hasiko da afaria Osinalde elkarte-
an eta afalondoren lehiatuko dira bertsolariak.

Kultur astearen azken txanpa

Apirilaren 18an, hasi zen aurtengo kultur asteak igande-
an izango du amaiera. Antolatutako ekitaldiak dituzue jarraian.

Apirilak 23, ostirala:

20:00etan: Javier Fernandez mendiko filminak, Kultur etxean: 'Baso tropi-
kala' eta 'Ordesako xarma'.

Apirilak 24, larunbata:

17:00etan: Eskola umeen antzerki saioa.

21:00etan: XXVIII. Bertsolari Gazteen txapelketa, Osinalde elkarte-
an.


Apirilak 25, igandea:

Meza ondoren, Goruntz dantza taldea.

17:00etan: 'Eskeletoak!' antzezlan, Goloka antzerki taldearen eskutik, Antzo-
kian.

Argazki lehiaketa

Apirilaren 18an egin zen ar-
gazki lehiaketa sari-banake-
ta.

Blanka Lopez, Jon Maiz eta Iñaki Maizentzat izan ziren lehenengo hiru sariak. Blanka Lopez beste sari bat ere eman zioten, aipamen bereziarena.

Argazki lehiaketako ar-
gazkien erakusketa ikusgai dago Kultur etxean igande-
rarte.

IDIAZABALEN II. GAZTA EGUNA Maiatzak 2, igandea



**Idiazabalgo
Udala**

EGITARAUA

- ✓ 10:00etan: artzaiek gazta dastaketa-salmentarako postuak irekiko dituzte.
- ✓ 11:00etan: herriko artzaiek gazta egingo dute era zaharrera eta modernaora.
- ✓ 11:30ean: ardi mozte ikuskizuna futbito aretoan.
- ✓ 12:30ean: Erramun Martikorenaren kantaldia.
- ✓ 13:00etan: Manuel Mintegi Aierbe artzaiari omenaldia
- ✓ Arratsaldean: Pilota partidu profesionalak pilotalekuan

OHARRA

Goiz partean:

- ✗ Gazta debalde dastatzeko aukera izangoda.
- ✗ Trikitilariak giroa alaituko dute.
- ✗ Hainbat jaki eta edari puesto izango dira: ezti, foie, ogia, txokolatea, ardoa, sagardoa, txakolina...

BEASAIN

Lizarra-Garazi akordioaren inguruko taldea



Lizarra-Garazi akordioa gizarteratzeko helburuarekin 'Sinatzaileen Beasaingo Komisia' sortu da Beasainen. Apirilaren 15ean egin zuen taldeak aurkezpena. Beasaingo taldea, HB, EAJ, EA, IU-EB, Zutik, ELA, LAB, ESK-CUIS, Ezker Sindikala, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak, Elkarri, Jarrai eta Komite Internazionalistak osatzen dute. Lizarra-Garazi akordioa gizarteratzea eta babes gehiago lortzea ditu helburu.

Bi etapatan banatu dute lana. Apirila bukaera bitartean, herriko taldea osatu eta Goierri mailan akordioa zertan den aurkezteko hitzaldia antolatzea du helburu taldeak. Honela, apirilaren 21ean egin zen aurkezpena, 'Lizarra-Garazi bake prozesuan sendotzeko bidean' izenburupean, Joseba Egibar (EAJ), Arnaldo Otegi (EH), Rafa Larreina (EA) eta Antton Karrerak (IU-EB) hartu zuten parte. Lizarra-Garaziko ituna zertan den azaldu zieten goierritarrei.

Bigarren etapa batean, ekainaren 13ko hauteskunde ondoan, berriz, akordioaren aldeko atxekipenak biltzen saiatuko dira herrian. Ahalik eta babes handiena eta ugariena jaso nahi dute eta horretarako herriko elkar-

reetan, taldeetan, herritarren artean eta auzo ezberdinetan, akordioa zabaldu nahi du 'Sinatzaileen Beasaingo Komisia'k.

'Mari jaia'

Alberto Bueno beasaindarrak irabazi du aurten Loinatz jaietako egitarauaren azala aukeratzeko egindako kartel lehiaketa. 'Mari jaia' da lanaren izena, eta kartela festetako irudien hainbat marrazkik osatzen dute: musika, dantza, kultura, kirola, etab. Egileak berak azaldu zuenez, pixkanaka marrazten joan da: "*Sortzen joaten da. Egiten hasten zara, eta gero moldatu eta aldatu egiten duzu*". Ez da lehen aldia Alberto Buenok lehiaketa hori irabazten duela. 1993 eta 1997. urteetan ere bere marrazkiak hautatu zituzten kartel bezala. Aurreko urteetakoak, ordea, eskuz eginak ziren. Aurtengoa, berriz, ordenagailuz egin du. Kolore biziak erabili ditu, bere esanetan, "*jaietako kartel batek bizia izan behar duelako*".

Kurdistan

Komite Internazionalistak eta Askapenak antolaturik, gaur, 19.30ean, Kurdistango herriari buruzko hitzaldi eta bideo emanaldia izango da Udaletxean. Horrez gain, bihar larunbata, afaria egin-

Gipuzkoako odol-emaileen festa igandean

Gipuzkoako Odol-emaileen Elkartek bere 34. batzarra Beasainen ospatuko du igande honetan. Horrekin batera Elkartek hainbat ekitaldi prestatu du, zuzendaritza batzordeko kide batek adierazi zuenez, egun hori emaileen festa eguna izan dadin. Helburua, bere esanetan, Gipuzkoako odol-emaile kopuru handiena leku batean biltzea da.

Goizetik hasita arratsaldera arte luzatuko da Odol-emaile Elkartek antolatutako egitaraua. Gipuzkoa osotik etorritako 650 bat lagun espero dituzte gehienez, eta guztiei ongi-etorria Antzizar kiroldegi aurreko enparantzan egingo zaie 11etan Aurtzakako dantzari eta txistulariekin. Urtero ospatzen duten batzarra ordu laurden geroago hasiko da, eta bertan emaile eta batzarkide guztiek hartu dezakete parte. Batzarrean ekonomikoki Elkartea nola dagoen, alta hartu edo baja eman duen jende kopurua eta odol-ateratzeen berri emango dute. Gainera, odolaren inguruko gaiez ere hitz egingo da. Gehienbat bilera informatiboa izan ohi da. Eguerdian, Kiroldegiko frontoian meza emango du Roberto Linquel San Martingo parrokoak.

Urrezko eta zilarrezko intsigniak emango zaizkie, hurrenez hurren, 50 odol-emate eta 25 eman dituztenei, 12:30ean. Aurten Beasaingo 35 pertsonei emango zaie; 33ri zilarrezkoa eta 2ri urrezkoa. Ondoren Loinatz abesbatzaren emanaldia izango da. Beasaindarrak odola emateko oso eskuzabalak diren arren, horrelako ekitaldietarako ez omen dira asko mugitzen Odol-emaile Elkartekoei adierazi zuten. Horregatik 14:30ean egingo den bazkarirako jendea animatu dadila eskatu du zuzendaritza batzordeak. Bazkaria kiroldegian bertan egingo da.

28 urte ondoren

Urteroko batzar hori Beasainen egingo den bigarren aldia da igandekoa. Odol-emaileen Elkartearen Beasaingo delegazioa 1970. urtean sortu zen, eta hurrengo urtean suertatu zitzaion lehen aldiz Batzarra antolatzeko ardura. Orduan izan zirenek nostalgiarekin gogoratzen dute egun hura. Loinatz jaiak ziren, eta egun horietan askotan gertatzen den legez eguraldi txarra eta euritsua egin zuen. Usurbe antzokian ospatu ziren meza eta batzarra.

Odol-ateratzei dagokien, 1999. urtean indartsu hasi dira. Sei saio egin dira, eta batzaz besteko emaitza oso ona bezala jo dute Elkartean: saio bakoitzeko 60en bat ateratze. Gehiago izan zitezkeen arren, pozik daude. Hurrengoa maiatzaren 5ean egingo da Urbi-Etxeko lokalean. Eskuzabaltasun hori dela-eta, Elkartek bere esker ona eman nahi izan dio Beasaingo herriari, eta igandeko ekitaldietara joateko gonbitea ere luzatu nahi die odol-emaile eta kolaboratzaile guztiei.

go da Plazako arkupeetan, eta egunean zehar Kurdistani buruzko erakusketa ikusgai egongo da Zubimuzun.

Saski erakusketa

'Euskal Herriko saskigintza' izenburuarekin apirilaren

27tik aurrera 100 saski mota ezberdin jarriko dira ikusgai Usurbe antzokian. Artisauak eginikoak dira, nekazal, mehatz, industria edo eguneko beharretarako eginak.

Jon Ordoñez

ORMAIZTEGI

Lizarra-Garaziko mugimenduari herritarron baietza

Udal plenoak martxoaren 25ean Lizarra-Garaziko mugimendua jasotzen ari zen hainbat erasoei erantzuna emateko asmoz hainbat erabaki hartu zituen.

Batetik, apirilaren 4an Aberri Egun bateratua ospatu zen. Udaletxean ikurrina altxatzea eta konzentrazioa izan ziren. Ohi bezala, herriko etxeak ikurrinez apaindu-rik izan ziren.

Bestetik, Udaletik, apirilaren 10ean Bilbon ospatu zen manifestaziora joateko gonbidapen zabala egin zen. Bertara joan ahal izateko bi autobus antolatu ziren Uda-

laren laguntzarekin.

Hurrengo deialdia, berriz, apirilaren 12rako izan zen. Egun horretarako eguerdiko 12:00etarako ordu beteko geldialdi deialdia egina zegoen. Herrian geldialdia nabarmena izan zen, herriko denda, taberna, lantegi... geldialdiari baietza eman eta beraien ateak itxi zituztelarik.

Jubilatuen etxerako ileapaintzaile zerbitzua

Jubilatuen etxeko ileapaintze zerbitzuaren kontzesioa burutzeko lehiaketa deialdia egin da. Deialdia Udalak

egin du eta lana egiteko epea 2000. urteko abenduaren 31rartekoa izango da. Behin-behineko bermea 25.000 pezetakoa da eta behin-betikoa 125.000 pezetakoa.

Aurkeztu beharreko agiriak pleguetan zehaztutakoak dira. Berauek eta argibide gehiago udaletxean jaso ahal izango dituzue. Eskaintzak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkarian atera eta handik 26 egunerartekoa da.

Ileapaintzailea aukeratzeko orduan euskara gaitasuna ezinbestekoa izango da. Euskara gaitasun proba hau kanporatzailea izango da.

Ondoren, ileapaintzaileei dagokien ezagupide zehatzak baloratuko dira. Berau ere kanporatzailea izango da. Ondorengo atalak baloratuko dira: ileapaintzaile eta estetikan teknikari espezialista, 4 puntu eta ileapaintzaile eta estetikan teknikari laguntzailea, 3 puntu; lanbidearekin harremana duten ikastaroek, gehienez 3 puntu; lanean ari-tutako urte bakoitzeko, gehienez 6 urtera arte, 0,5 puntu; eta zerbitzua betetze-ko aurkeztuko den proiektuak 3 puntu.

Aitziber Murua

EZKIO-ITSASO

Aberri Egun bateratua

Lizarra-Garaziko itunean oinarriturik eta sortu berria den Euskal Herriko Udal ordezkarien biltzarrak deiturik, joan zen apirilaren 4an Aberri Egun bateratua ospatu zen Euskal Herria osatzen duten Udalerrietan.

Ezkio-Itsasori dagokio-nez, eguneko ekintzak goizeko 11:30ean hasi ziren Eus-

kal Herriaren ikurra den hari-tzaren landaketarekin. Ondoren iritsi zen ekitaldiko momenturik hunkigarriena. Garai batean gudaria izandako Damian Osinaldek, Ezkio-Itsasoko alkatesa den Isabel Olangak eta etorkizunaren eredu diren Itziar Juantorena eta Josu Ibarguren ikurrina jaso zuten. Aureskua dan-

tzatu ondoren, Iñaki Murua-ren bertsoak eta ekitaldi politikoak eman zioten amaiera udaletxe aurrean eginiko ekitaldiari. Ondoren eta lehen aldiz, herria osatzen duten auzo guztiak bisitatu ziren autobusez poteo herrikoia egiteko asmoz. Azkenik, egun historiko honi amaiera emateko bazkari herrikoia

ospatu zen Itsaso Alegiako frontoian.

Egun amaieran poza eta itxaropena ekitaldian parte hartu zuten guztien artean eta etorkizunari begira helburu nabarmena: ekintza hauek areagotu eta guztion laguntzarekin elkartasunaren alde emaniko pausoak finkotu.

Joseba Etxezarreta



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA **BEASAIN**

ORDIZIA

Euskara Ordiziako merkataritzara

"Euskara Ordiziako merkataritzara" izenez ezagutzera emango den proiektua mar-txan jarria berria du Udalak, "Ordizian" dendarien elkar-tearen lankidetzarekin. 1996ko zentsuko datuen ara-bera Ordiziako herritarren %75ak neurri handiagoan edo apalagoan euskara eza-gutzen du eta errealtate hori Ordiziako dende kontutan hartu behar dute euren es-kaintza eta zerbitzuak mer-katuaren ezaugarri eta eska-eretara egokitu ditzaten.

Proiektua SIADECO en-presak koordinatuko du eta helburu nagusiak ondoren-goak izango dira: sektorea-ren hizkuntza egoera azter-tzea eta merkataritza adar bakoitzak dituen aukera eta hutsune linguistikoak eza-gutzea, denda bakoitzaren beharretara egokitutako hiz-kuntza zerbitzu eta bestela-ko material espezifikoak do-an eskaintzea eta, azkenik, epe ertain/luzera jorratu be-harreko lan-ardatz nagusiak definitzea, egungo egoera eta proiektuaren emaitzak kontutan harturik.

Lana aurrera eramateko udalerriko merkataritza eta



Ekaitz Goikoetxea eta Estitxu Eizagirre aurrera

Ordiziako Argi Berri Elkartean apirilaren 10ean egindako bertso-saioan erabaki zen zein bertsolari izango ziren, aurre-tik Brinkola eta Idiazabalen sailkapena lortutakoei Gabiria-ko finalean lagunduko zietenak. Aurretik Jokin Uranga, Oihane Perea, Arkaitz Goikoetxea eta Joseba Gojenola txar-telak lortuta bazeuden, Argi Berrin Ekaitz Goikoetxea bea-saindarra eta Estitxu Eizagirre hernaniarra izan ziren epai-mahaikoen ustetan onenak.

Aipatu biekin hor izan ziren baita ere kantuan Iker Osa, Urko Egaña, Julen Zelaieta eta Mikel Altzuart. Bertsolari gazteoi gaiak jartzen Igor Eguren aritu zen. Sari berezi bat ere izan zen Argi Berrin burutu zen bertso-afari honetan eta berau Ekaitz Goikoetxeak eraman zuen, bertan bildu ziren 60ren bat lagunentzat berau izan baitzen hoberen aritu zen bertsolaria.

Argazkian ikus daiteke Igor Eguren gaia jartzen eta ber-tsolariak erantzuteko prest, Aitor Sarriegiren ondoan Ekaitz Goikoetxea eta jarraian Iker Osa, Estitxu Eizagirre, Urko Egaña eta Mikel Altzuart. Julen Zelaieta da falta dena.

bestelako hainbat zerbitzue-tako denda guztiekin zuze-neko harremanak izango di-

ra ondorengo helburuekin: egitasmoaren inguruko in-formazioa eskaini, euskara-

ren egoerari buruzko infor-mazioa jaso eta egitasmoak eskaintzen dituen hizkuntza zerbitzu eta laguntzak aur-keztu.

Herria hankaz gora

San Pedro kalean hasi dira zorua berriztatzeke lanak egiten eta, egunean hainbat eta hainbat jende pasatzen den kale hau erabat zulotuta daukagu, oinezkoentzat zi-rrizku txiki bat geratuaz ber-tatik pasatzeko. Lan hau amaitzean Etxezarreta eta Elkano kaleei iritsiko zaie txanda eta horrela herri gune guztiko zorua berriztatu ar-te.

Joseba Rezola etorbidean ere irekita dago herri hone-tan hain beharrezkoa den aparkalekua. Bertan 60ren bat kotxerentzat kabida da-go.

Nafarroako Etorbidean ere egin berri dituzte hainbat garaje, hauen gainean lora-tegi eta egonleku polita utziz. Garagartza Plazako lanak ere ia amaitzean daude eta itxura onean utzi dute to-kia.

Aitor Calvillo

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea


ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

URBITARTE

sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN



*Lore apainketa
mota guztiak
egiten dira*

- Ezkontzako lora sortak
- Eliza eta kotxeen apainketa
- Koroaiak

ENKARGU ETA ENTREGAK
AMAREN EGUNEAN
MAIATZAK, 2

☎ 943 88 98 83
Geltokiko kioskoa ORDIZIA

ZALDIBIA

Apirilaren 14rako deituta zegoen udal batzarraren bilera berezian, beste gai batzuen artean, bi mozio onartu ziren. Intsumisioaren aldekoa izan zen bat, eta herri kurdoaren aldekoa bestea.

Eudimak aurkeztutako mozioak honako puntu hauek biltzen ditu:

- 1.- Gizarte desmilitarizatu baten aldeko intsumisioe-kiko elkartasuna adieraztea.
- 2.- Espainiar armadarekin ez kolaboratzea, besteak beste, alistamenduak udal-letan egin beharra onartezina delako.
- 3.- Insumisioei ezartzen zaizkien inhabilitazio zigorrak salatzea.
- 4.- Intsumisioaren despenalizazioa aldarrikatu eta intsumisioei inolako zigorrik ez jartzeko exigitzea.
- 5.- Onartutako mozio honen berri ematea herritarrei, Eudeli, Foru Aldundiari, Gasteizko Legebiltzarrari



Lanuztea

Lizarra-Garaziko taldeek deitutako apirilaren 12ko ordubeteko lanuzteak erantzun zabala izan zuen herrian. Argazkian plazan egin zen konzentrazioa. Lantegi aurretan ere egin ziren bilkurak.

eta Espainiako Parlamentuari, Komunikabideei eta Eudimari.

Herri kurdua

40 milioi biztanle inguruk osatzen duten eta, nagusiki, 4 estatutan banatua dagoen Kurdistango herriak jasaten duen zampaketa egoeraren aurrean berriz ondorengo onartu zuen Udalak:

- 1.- Herri kurdoari elkartasu-

na adieraztea eta bere eskubideak aldarrikatzea.

- 2.- Herri kurdoaren aurkako zampaketa, errepresioa eta bortxaketa salatzea, bereziki Estatu turkiarraren politika genozida.
- 3.- Abdullah Ocalan buruzagi kurdoaren atxiloteta gaitzestea, eta bere eskubideak errespetatu daitezen mugimendu kurdiarrak proposatu duen Nazioarte-

ko Batzordearen eraketa apoiatzea.

- 4.- Herri kurdoaren gatazka negoziazioaren bidez konpon dadin eskatzea, eta horretarako mugimendu kurdiarrak proposatutako Nazioarteko konferentzia apoiatzea.
- 5.- Gasteizko Parlamentuko mahaiak hartutako Kurdistango Parlamentua bere egoitzan biltzeari buruzko erabakia apoiatzea eta ongi etorria ematea.
- 6.- Elkartasun adierazpen gisa, martxoaren 21ean ospatzen den Newroz ize-neko urte kurdiarraren hasierako jai egunean, Udal-letxean, ikurrinarekin batera, bandera kurdo jar-tzea.
- 7.- Ebazpen hau Turkiako Enbaxadari, Kurdistango Parlamentuari eta Estatu-ko ERNKren ordezkari-tzari bidaltzea.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*

LEGORRETA

Apirilaren 17an eman zitzaion hasiera bikotekako pelota txapelketari. Aurten gainera, gaztetxoek ere parte hartu ahal izango dute. 15 urtetik gorakoak berri bi kategoriatan banatuko dituzte.

Play-backa

Herriko festak ere gainean ditugu dagoeneko eta azken urteotan hainbeste arrakasta lortu duen play-backean parte hartu nahi dutenek, maiatzaren 7a baino lehen eman beharko dute izena

Udal Liburutegian, arratsaldeko 5etatik 8etara.

Posible bada, CDak aurkeztea gomendatzen da. Bertan partehartzaileen izen eta adinak ipini beharko dira, imitatu behar duten talde eta abesti izenarekin batera.

Ea partehartzera animatzen zareten eta aurtengoan ere ikuskizun paregabearekin batera gozatzeko aukera izaten dugun.

Josune Amondarain

Pelota txapelketa hasi da

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

SEGURA

Apirilaren 25ean Gipuzkoa-ko odol-emaile elkarteak Beasaingo kiroldegian izango duen batzar orokorrean, besteak beste, dominak banatuko dizkie hainbat emanaldi egin dituztenei. Herritarrei dagokienez, 25 emanaldi egin izanagatik zilarrezko domina jasoko dute Maria Victoria Aiestaranek, Goixon Etxeberriak, Joan Mari Oiarbidek eta Bixente Albusuk. 50 emanaldigatik, berriz, urrezkoa jasoko dute Joakina Alustizak eta Ximon Garaialdek. Ondoren, lagunarteko bazkaria izango dute.

Guraso Elkartean subasta

Martxoaren 29an egin zen txokoko ondasunen subasta elkartean bertan. Telebista, kafetera, labea, mahaiak eta aulkiak, edariak... erosteko lehentasuna bazkideek izan zuten. Enkantean 250.000 pezeta inguru jaso ziren eta estatutuek dioten modura San Joan egoitzara bideratuko dira.

Bola

● **Gipuzkoako txapeldu-norde.** Pasa den asteburuan bukatu ziren Goierriko eta Gipuzkoako erregularitate txapelketak. Eskualdekoan Antonio Agirre 8. geratu da. Herrialdekoan, txapela eramateko aukera handia izan bazuen ere, 2. egin zuen Antoniok eta 8. Imanol Agirrek. Euskadiko txapelketarako sailkatuak daude biak.

● **Bola Seguran.** Maiatzaren 2an Gipuzkoako binakako finala jokatu da Txoritegi bolatokia. Goizez 9:30etik 12:00etara eta arratsaldean 16:30etik 17:30era.

Pelota

● **Intxaurrendoko torneo.** Kadeteetan, Mazkiaranek eta Garikoitz Oiarbidek

Dominak odol-emaile herritarrei



Maiatzaren 2an izango da Gurutze Deunaren proba.

Santa Kruz eguna beheko barrioan

Santa Kruz maiatzaren 3an bada ere, bezperatik hasiko dituzte ospakizunak bolalekutik behera bizi direnek.

Maiatzaren 2a:

Txirrindulari proba. Herriko Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Jabier Ormazabalaren oroimenez, jubenil mailako XXV. Gurutze Deunaren proba korrituko da. Goizeko 9,30etan Germanenetik irtenda 96 Km egin ondoren, 11:56 alderako espero da amaiera irteerako leku berean. Helmuga baino 4 Km lehenago Liernia igo beharko dute. 120 txirrindulari inguru espero dira.

Toka. Karreraren ondoren, 12:00ak aldera hasita, herritarrentzako toka saioa izango da Germanene aurrean. Lehen eta bigarren sailkatuentzat trofeoak izango dira.

Maiatzaren 3a:

Auzoko meza. Iluntzeko 7,30etan emango da Beheko Kurutzan urte barruan auzoan hildakoen alde. Ondoren, Udalaren laguntzaz mokadutxo eskainiko da bertaratuko direnentzat.

Auzotarren afaria. Orain arte Guraso Elkartean egin izan bada ere, hau itxi dela eta, eguraldiak laguntzen badu Germanene aurrean eta bestela bertako garajearen egiteko asmoa da. Mahaiak eta aulkiak Udalarik eskatuko zaizkio. Jatekoa, platerak eta edalontziak, berriz, familia edo koadrilaka antolatu eta norberak eraman beharko du (Goiko barrioan egiten den modura). Edariak eta kafea Antonkalenetik ekarriko lirateke.

finalaurrekoa jokatu dute datorren asteburuan. Afizionatueta Castellanok eta Jon Ander Hombre ere finalaurrekoetarako sailkatuak daude. Alfarok eta Ibon Etxeberriak asteburu honetan final laurdenak jokatu dituzte.

● **XXXII. Herri arteko txapelketa.** Asteartean zen zozketa egitekoa eta asteburu honetan lehen partidua izatekoa. Aurrekoetan bezala, ez da kanporaketarik izango. Herriak taldeetan banatu eta ligaska modura jokatu da

aurtengo edizioa. Kadeteetan Garikoitz Oiarbide, Enetz Olano edo Iker Agirrezabal arituko dira. Jubeniletan Inge Olano, Ibai Telleria, Ekhi Albizu edo Uritz Gonzalezekin. Afizionatueta Jon Ander Hombre eta Ibon Etxeberria.

Kirol eskolarra

● **Tenisa.** Neska alebinek Gipuzkoako txapelketako finalaurreko partidua dute zapatu honetan Donostiako Mary Wart ikastetxearen kontra.

● **Herri kirolak.** Goierriko ikastetxeetako benjaminiek Segurako frontoian izango dute herri kirol saioa, zapatu honetan goizeko 10etan hasita.

● **Mendi irteera.** Maiatzaren 2an Aratzera goizeko 8,30etan plazatik irtenda.

Errejonalak lider

Liga amaitzeko 4 partiduren faltan lider jarraitzen dute Iñaki Albisuren mutilek.

Asteburuko emaitzak:
Errejonalak: Segura 1-1 Zumaia. **Jubenilak:** Segura 1-1 Hondarribi. **Kadeteak:** Eibar 4-2 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 1-1 Real Union.

Asteburuan ez da partidurik etxean. Errejonalek Mendaron jokatu dute Kilimonen aurka.

Labur-labur

● **Iparra-Hegoa zozketa.** Martxoaren 29: 6.810. Martxoaren 30: 9.981. Martxoaren 31: 7.349.

● **San Andres ermittari teiatu guztia berri eta urak bideratu zaizkio.** Kostua, San Andresko Patxi Albizuk bere gain hartu du.

● **Joxemari Telleriaren erakusketa.** Gaur arte egongo dira ikusgai Ordiziako Barrena jauregian pintore herritarren azken 2 urtetako lan guztiak. Musika eta pintura uztartzen dituzten 39 lan.

● **Kinto afariak.** Hamar kintak baino gehiagok afariak izango dituzte Lazkao festak aprobetxatuz apirilaren 24an.

● **Maiatzaren 9ko Herri Urratserako** autobusa antolatuko du Elorri Kultur Elkartek.

Joseba Telleria

OLABERRIA

Iurre auzoko jaia datorren asteburuan

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1 eta 2an, Iurre auzoko jaia ospatuko dira, ohi-turari jarraituz. Haur, gazte, heldu eta zaharrenentzako ekitaldiak antolatu dira. Egunez eguneko egitaraua duzue jarraian:

Apirilak 30, ostirala:

19:30ean: Askaria.

20:00etan: Buruhandien irteera txistulariek lagunduta.

20:30ean: Haurrentzako jokoak.

23:00etatik 3:00etara:

Araba taldearekin dantzaldia eta mozorro lehiaketa, 14 urtetik gorakoentzat.

3:00etan: Txistorra jana 'Poblado' tabernan.

Maiatzak 1, larunbata:

San Jose Langilearen eguna:

10:00etan: Eskulanak 14 urtetik beherako haurrentzat.

10:00etan: Txistulariekin goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Incansables taldeak herria zeharkatuko du bere soinuarekin.

13:30etan: Incansables taldearen kontzertua.

16:30ean: Herri mailako Mus txapelketa.

19:00etatik 21:30era: Dantzaldia Incansables taldearekin.

20:30ean: Kalderete lehiaketako bilketa.

23:00etatik 2:00etara: Incansables musika taldea.

Maiatzak 2, igandea:

12:00etan: Poteo herrikoia trikitixarekin.

17:00etan: Herri mailako Toka txapelketa.

17:00etan: Haurrentzako jokoak.

19:00etan: Kalejira trikitixarekin eta buruhandiak.

19:30ean: Txokolate jana.

19:00etatik 23:00etara: Dantzaldia Araba taldearekin.



Gizarte Etxearen urteurrena

Gizarte Etxeak 4. urteurrena ospatu zuen apirilaren 7an. Luntxa eta jokoetako sari-banaketa izan zuten besteak beste.

Mus txapelketa: Martin Arrondo eta Ignacio Nieto bikoteak irabazi zuen, Avelino Barbadillo eta Pedro Carracedori irabazi ondoren.

Briska txapelketan, Ana Maria Fernandez eta Maria del Carmen Vinseiro izan ziren irabazleak eta bigarrenak Paulino Casado eta Jose Matias.

Dominoan Angel Flores eta Jose Merino izan ziren lehenengoak eta bigarren Salvador Mendez eta Gregorio Martinez.

Tokako txapelduna Pedro Carracedo izan zen eta bigarrena Jose Matias.

Tutean irabazle berberak izan ziren: Pedro Casado eta Jose Matias. Bigarrenak Margarita Arranz eta Isabel Garcia izan ziren.

Igel jokoan azkenik, Santiago Apaolaza izan zen onena, Paulino Casadori irabaziz.

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

iñAUSTI



KARROZERIA

N-1 errepeidea, Iurre auzoa

943 88 43 01 OLABERRIA



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

943 88 09 47

ARANDIA

Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

ARRIETA

JATE TXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

ZEGAMA

Ekitaldi ugari



Tartaloetxeo Arrantza lehiaketa

Martxoaren 19an, Tartaloetxe Kultur Elkarteko arrantza lehiaketa jokatu zen, 16 urtetik beherakoen artean. Irabazlea Aitor Perez izan zen, 5 amuarrainekin; ondoren Joseba Berasategi bi amuarrainekin eta Xabi Azurmendi hirugarren beste birekin. Aurten iaz baino amuarrain gehiago harrapatu zituzten partehartzaileek, honekin herriko ibaiaren egoera ona azalduz alde batetik eta bestetik, Zegaman ehizak ez ezik, arrantzak ere etorkizun ona duela adieraziz. Partehartzaile guztientzat arrantzarako materiala banatu zuen elkarte antolatzaileak.

Santa Kruz jaiak, Olaberrian

Maiatzaren 1etan eta 2an ospatuko dira Olaberriako jaiak. Bertako ekarteak antolatutik, Udalaren diru-laguntzarekin, aurten ere gaztetxo-entzako txirrindu frogak, umeentzako joko eta trikitixa izango da guztien gozamenerako. Ikus eskuprograma.

Kontzertua

Tobera Musika Eskolak antolatutik kontzertu interesgarria izango dugu apirilaren 24an, larunbata, arratsaldeko 6etan, Elizan. Kontzertua Beasaingo Musika Eskola Publikoko abesbatzak eta orkestrak eskainiko du.

Txirrindularitza

Datorren apirilaren 25ean, goizeko 10,30etan, kadeteen txirrindu froga izango da.

Herri Urrats

Datorren maiatzaren 9an Herri Urrats 99 burutuko da Senperen. Kultur etxeak urtero bezala, autobusa antolatu du bertarako. Izen ematea Udaletxean. Epea maiatzaren 6an bukatuko da eta bidaiaren gastu ordaina 700 pezeta-koa izango da.

Saiatu enpresaren oharra

Olaran auzoan garajeak ditu salgai. 6 metro luzeran eta 3 metro zabalerakoak. Altuera: atea 2,50 m. eta barruz 2,80



1998-99ko gurasoak. Ezkerretik hasita, zutik: Pili Ezeiza, M. Karmen Arrieta, Maixabel Azurmendi, M. Jesus Mujika, Inaxi Urreaga, Axun Etxegia eta Marisol Etxeberria. Eserita: Maite Alustiza, M. Jose Gorrotxategi, Ana Perez eta Arantxa Aristimuño.

Eskulanak Aitxuri Herri-eskolan

1984 urte aldera Zegamako Herri-eskolako irakasleek gurasoen partaidetza eskolarako aberasgarria izan zitekeela ikusi zuten. Orduan egindako proposamenari oso ondo erantzun zioten gurasoek eta ordutik etengabea izan da hauen lana.

Gaur egun partaidetza horrek jarraitzen du eta, beste arlo batzuen artean, eskulanetan oso zuzena da. Ostiral arratsalde- ro eta ikasturte guztian zehar, Aitxuriko geletan izaten ditugu, tailerrak antolatu, ikasleei euren trebeziak erakusten eta irakasten. Ikasturte honetan saskigintza, marketeritza, pirograbadora, pintaketa, teknologia, kareta eta birziklaketa tailerrak badaude ere, aurretik beste tailer mota asko izan dira: jostea, sukaldaritza, tapizak, ispiluak, punto kruz, buzingintza, maramea...

Plastikako tailerrak, kopuruz txikiak izaten dira, neska-mutilak eta adin desberdinetakoak elkartuta. Taldeak murriztak izateak laguntzen du elkarren arteko giro atsegin batean lan egitea, ekoizpen oso landuak lortuz. Hauek ikusi ahal izateko, urtero Zegamako jaietan, egindako lanen erakusketa antolatu- zen da.

Hau dena ez zen posible izango emakume hauen borondate- terik gabe. Hau guztia dela eta, musutruk eta pazientzia han- diz, euren laguntza eskaini diguten eta ziguten guztiei eske- rrak luzatu nahi dizkizuegu eta aurrerantzean parte hartzeko prest dauden guztien lana estimatuko dugu.

Aitxuri Herri-eskola

m. Informazio gehiago: Saia- 608 671842 (Jon Mikel).

tu eraikuntzak. Telefonoa:

Eduarne Albizu

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 943 889390 BEASAIN



Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

Olagi
Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA

IDIAZABAL

BIGARREN GAZTA EGUNA MAIATZAREN 2an: "Gaztaren alde lan egiteko garaia da"

Gaztaren bigarren eguna ospatzeko guztia prest dago Idiazabalen. Gazta Batzordeak hiru egunetan banatu ditu aurten ekitaldiak, hala ere jai nagusia, iaz izendatu bezala, maiatzeko lehenengo igandean izango da. Egun horretan aurtengo denboraldiko Idiazabal gazta doan dastatzeko aukera izango da.

Apirilaren 29an adituek egindako gazta dastaketarekin hasiko dira ekitaldiak. Maiatzaren 1ean izango dute segida, aurten, nobedade gisa, herriko elkarteetan afa-riak antolatu dituzte. Afarien helburua "jendea girotzea" da antolatzaileen esanetan. Horretarako menu berezia prestatu dute: pikatxa, arku-mea, gazta menbrilloarekin eta mamia. Afarirako txartelak herriko tabernetan daude salgai 2.000 pezetan, apirilaren 28ra bitartean.

Egun garrantzitsuena orde-
dea igandea izango da, iaz
estrainekoz antolatutako
jaiaren helburu bera du aurtengoak ere Gazta batzordeko ordezkari baten esanetan, "herriaren izena daraman, eta horrenbeste lekutaraino iristen den gaztak egun bat beretzat izendatzea merezi duela uste dugu". Aldarrikapen puntua ere badu Gaztaren jaiak, antolatzaileen hitzetan: "leku askotan egiten dira lehiaketak gazta honen izenean, eta Idiazabalen orain arte ezer gutxi egin bada ere, garaia iritsi delakoan gaude". Idiazabalgoa ez da



Kontuz aparkatzerakoan!!

Euskadiko Kutxa eta Luis Mari harategiaren arteko bidegurutzean eta Mikel janaridenda eta Mediki etxearen arteko espaloian kotxeak nolanahi aparkatzen direla eta, Udalak Ertzantzarekin elkarlanean neurri zorrotzak hartzeko asmoa du.

Euskadiko Kutxa eta harategiaren arteko bidegurutzeko espaloietan piboteak jarri dituzte aparkamenduak galeratzeko. Aipatutako beste guneak libre jarraitzen du. Jendeak espaloietan aparkatzen jarraitzen badu, beste ohar batzuk kalera-
tu ondoren neurriak gogortu egingo ditu Udalak. Ertzantzarekin elkarlanean salaketak jarri, edota guari deituko diotela jakinarazi dute. Neurri hauek ekainaren 1etik aurrera jarriko dira indarrean.

ordea lehiaketa izango, doan gazta dastatzeko aukera izango da.

Hego Euskal Herriko 14 artzainek ekarritako 140 kilo gazta jan zen iazko Gazta Egunean. Aurten kopuru hori gainditzea espero dute antolatzaileek. Plaza buelta guztian egongo dira Artzai Gazta elkarteak artzainak, nahi duenari Idiazabal gazta eskaintzeko. Antolatzaileen esanetan, "gazta aurtengo denboraldikoa izango da, egin berria beraz, garaia agintzen duen bezala".

Gazta dastatzeaz gain, hura nola egiten den ikusteko aukera ere izango da. Herriko bi artzain arituko dira lan horretan, bata era tradizio-nalean gazta nola egiten zen erakutsiko du, besteak gaur egungo tresneria erabiliko du. Tradizioa eta berritasuna uztartuko dituzte era berean ardi mozteko. Ardiei ilea mozteko garaia izaten da udaberria, eta hori nola egiten den erakutsiko dute, eskuz arituko da herriar bat eta makinaz kanpoko gonbidatu bat.

Jai eguna ospatzeko ekitaldi gehiago ere antolatu dira. Bata, egun honen ezaugarri izan nahi duen omenaldia, aurten Manuel Mintegi Ur-suarango artzaina omenduko dute. Beste artzain batek, Erramun Martikorenak bere kantuak eskainiko ditu plaza-n. Ikuskizuna ospatzeko Axari dantza taldeak jende-aurreko lehenengo emanaldia egingo du, Agurra, Axari dantza eta Zazpi jauzi dantzak eskainiko dituzte.

Laguntzarako deia

Maiatzaren 2rako guztia prest egon dadin, antolatzaileek herriar guztiei deia egin die, bezperan, maiatzak 1, goizeko 9:00etan plazara azaltzeko. Hurrengo egunerako puestoak eta bestelako azpiegitura prestatuko dira goiz horretan.

Lizarra-Garazi

Idiazabalgo EA, HB eta EAJk antolatuta Lizarra-Garazi akordioaren aurkezpena egin zen apirilaren 15ean Kultur Etxean. Karmele Aierbe HB-ko Mahai Nazio-naleko kideak eman zuen alderdi abertzaleek eta Ezker Batuak duela 7 hilabete abia-tutako ekimenaren berri. On-doren herriarren galderei erantzun zien Aierbek.

Lizarra-Garaziko alderdi eta sindikatuek hilaren 12ra-ko deitutako ordubeteko lan-nuzteak erantzun zabala izan zuen Idiazabalen.

Xabier Urteaga

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

GOIERRITARRA

☎
943 88 96 12

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterol, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA
GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 **BEASAIN**

ATAUN

Zehazki esaterik ez badugu ere, hemezortziren bat urte daramatza 'Eguzki Berri' al-dizkariak atandarroi eskolako haurren lanak ezagutze-
ra ematen. Egun eskulaneta-ko tailer moduan funtziona-
tzen du eta hiruhilabetero,
zozketa bidez osatzen da lan
taldea. Urtean hiru ale argi-
taratzen dira beraz, eta aldi-
ko, 70-80 orri inguruko 175
ale. Hauetatik bana dagokio
eskolako haurren familia ba-
koitzari. Gaineratikoak he-
rrian saltzen dira eta zenbait,
elkarte eta komunikabide ja-
kin batzuetara ere bidaltzen
dira, GOIERRITARRA
barne.

Salmentaz 6. mailako
ikasleak arduratzen dira, ale
bakoitza 200 pezetako sal-
neurrian, nahiz eta esan be-
har den ale bakoitzaren kos-
tu erreala 450-500 pezeta in-
gurukoa dela. Aipatu behar
da 'Eguzki Berri'k Ataungo
Udalaren jasotzen duela.

Zenbakioro aldaketaren
bat eman baliteke ere sail
batzuk jakinak dira, hala no-
la, erreportaia, lehiaketa,
denborapasak, sukaldaritza
eta haurren lanak (marrazki,
poesia, bertso, idazlan...).

'Eguzki Berri': lagun zaharra berri



Eskerrak guztiei eskainitako laguntzagaritik eta baita Mari Karmen Izuetari ere. Eta orokorrean urteen joan etorrian proiektu hau posible egin duten guztiei ere.

Sail bakoitzaz bi ikasle ar-
duratzen dira. Ale honetan
Alaitz Etxeberria eta Iñigo
Dorronsoro arduratu dira sar-
rera eta sukaldaritza; Iraitz
Goikoetxea eta Asier Gon-
zalez erreportaiaz eta Ainara
Imaz eta Garazi Etxeberria
denborapasak aurkezteaz.

Herriarteko pelota txapelketa hastear

Gipuzkoako Herriarteko pe-
lota txapelketa lehen aldiz
1968an jokatu zen. Parte
hartu zuten 45 herrien artean
zen Ataun ere baina, zorte
txarra izan zuen inondik ere

eta lehenengo kanporaketan,
Zaldibiaren aurka galdu eta
eliminatuta gelditu zen.

Espero dezagun asteburu
honetan hasiko den txapel-
ketan, Justo Dorronsorok or-
dezkatzen duen taldeak zor-
te gehiago izango duela.
Bertan izango dira kadeteen
mailan Eñaut Sukia, Gorka
Imaz eta Gorka Albisu. Ju-
beniletan Jon Dorronsoro
eta Eusko Sukia eta azkenik,
Zorion Barandiaran, Eneko
Imaz eta Rafael Zubizarreta
seniorren mailan. Zorte on
guztiei!

Labur-labur

● Gaur, hilak 23, Liburu
Eguna ospatzen da. Joxean
Ormazabal idazle zegama-
rrak udaletxean, arratsalde-
ko 3etan hitzaldia emango
du. Eskolako haurrei zuzen-
dua badago ere, deialdia ire-
kia da. Gonbidatuta zaude,
beraz.

● Atsedentoki Elkartek an-
tolatutako joko txapelketa-
ren azken asteko emaitzak
hauetxek dira: eskoba eta
puntuan bikote txapelduna,
Joxepa Etxeberria eta Anto-
nio Goikoetxea; musean be-
rriz, Jazinto Begiristain eta
Joakin Aizpurua. Elkartek
bide batez Udala eta lagun-
tza eman duten gaineratiko
erakundeak eskertu nahi li-
tuzke eskainitako laguntza-
garitik eta noski, partehartzai-
le guztiak.

● Joan den astean hil zen
Zubikoetako Karmen Arrua-
barrena Etxeberria. Dolumi-
nak sendiari.

● Oraindik garaiz zabiltzate
Ataun Aztergai Bekarako
zuen lanak aurkeztu asmoz
zabiltzatenok. Epea maia-
tzaren 8an amaitzen da eta!

Agurtzane Bikuña

Garbitasunak
OXEPI
943 88 96 67 ZALDIBIA

ILEAPAINDEGI MISTOA
✓ Solarium 4.500 pta.
10 saioko bonoa
✓ Depilazioa
✓ Kolore eta
permanenteak,
astelehen, astearte eta
asteazkenetan %5eko
deskontuaz
Rekartalde, 30 943 88 34 86 BEASAIN

SEGURA
IRRATIA
F.M. 89.2
EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

ZALBIDE
SAGAROTEGIA
Arraiak parrilan
943 65 21 76 ABALTZISKETA

TOKI-ALAI JATETXEA
Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...
Tfnoa.: 943 88 89 53 ARAMA

Maider Urretabizkaia'ren pintura erakusketa

Usurbe antzokian

Hogeita bost koadro inguru erakusgai ditu Maider Urretabizkaia lazkaotarrak, Beasaingo Usurbe Antzokian, apirilaren 25era bitartean. Lan guztiak berriak dira eta jendeari pintura abstraktua zer den erakutsi nahi dio.

Pintura abstraktua egiten du Maider Urretabizkaia. Marroiak, laranjak, gorriak, lur koloreak... kolore beroak, dira nabarmen bere koadroetan. Oraingoan hala ere, urdinarekin ahalegina egin du, urdina eta berdea nahastuz. *"Baina hala ere nire gustokoak beste koloreak dira. Ez dakit zergatik gustatzen zaizkidan kolore horiek. Urdina konbinatzea zaila goa egiten zait. Urdina berdearekin konbinatzea baka-rrik gustatzen zait"*, esan digu lazkaotarrak. Koloreek irudiak berak baino inpresio gehiago ematen diote Maiderri. *"Niri paisaje batek ez dit ezer esaten. Oso ohituta nago paisajeak ikustera eta*



"Nik ez dut pintatzen pentsatuta. Buruan dauzkadan irudiak margotzen saiatzen naiz", dio Maiderrek.

ez dut disfrutatzen paisaje bat egiten". Koloreen alde- tik hala ere, urte batzutatik hona aldea nabaritu du lazkaotarrak: nahiz eta kolore berberak erabili, lehengoak biziagoak ziren.

Mugimendua azaltzen da Maiderren lanetan, *"lehen zirkuluekin eta orain koadratuekin"*. Lazkaotarrak sensazioak adierazten ditu koadroetan. Buruan darabilzkie irudiak isladatzen ditu. *"Jendea gauza primitiboak, haitzuloetako irudien sentsazioa ematen dio. Azaltzen ditudan figura bakarrak sinbolikoak dira: eguzkia, ilargia..."*

Teknika aldetik, formato ezberdineko bastidoreak erabiltzen ditu. *"Tela lodia jartzen diet, normalean bakeroa, eta gero marmol hautsa eta kola baten arteko nahasketa ematen diot. Horrekin testurak egiten ditut. Gero gainetik, oleoarekin margotzen ditut"*.

Usurbe antzokirako prestatu duen erakusketako 25 koadroen artean lotura dago Maiderren esanetan. *"Kolora eta forma aldetik berdintsuak dira baina hasieratik bukaerara ezberdintasun handia dago, konturatu gabe aldatu egiten da. Serie bat bezala da. Bi hilabetean*

prestatu dut erakusketa eta normala da berdintsuak izatea".

Erakusketarekin pozik

28 urte ditu Maiderrek. Arte Ederreko ikasketak egin zituen eta Beasaingo da egin duen erakusketarik garrantzitsuenak. Gustora gelditu da gainera egindako lanarekin. Aurretik Aterpe tabernan eta Lazkaon egin ditu erakusketak. Maiderrek aitortu duenez, Aterpe tabernak bideak zabaltzen dizkie pintore gazteei.

Erakusketa honekin, pintura abstraktua jendearengana hurbiltzea nahi du Maiderrek. *"Jendea ohituta dago erretratuak edo paisajeak ikustera, baina abstraktua ikustera ez"*.

Artea, artelekuak kalera atera behar dira pintorearen ustez. *"Artea, artelekuak kalera atera behar dira. Jendea ohitu egin behar da artea ikustera"*. Ildo honetatik, muralak margotzea da Maiderren ilusioa, *"artearen herriari azaltzeko"*.

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe



AZKARATE

IBABE INDUSTRIALDEA

943 88 81 01

LAZKAO



ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaia

itxondo
roztegia, C.B.

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g

94316 09 31

LAZKAO

KIROLO OSASUN ZERBITZUAK

KEMEN

LAZKAO

Jai zoriontsu eta osasuntsuak opa diezkiegun!

943 16 22 26
Faxa: 943 16 22 27
Elosegia, 14

MAPFRE

ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!

Pello Barandiaran

943 16 13 61
Hirigoien, 18
LAZKAO



1981eko lazkaotarrak

1984-1985. ikasturtean ateratako argazkia da Lazkaoko ikastolakoena.

Goian: Idoia Arratibel eta Kari Eztala (andereñoa). **Erdian:** Iñaki Estensoro, Beñat Urteaga, Naiara Tejados, Josune Borrego, Xabier Mingez, Asier Albisu, Maitane Zabala, Leire Aldasoro, Aitor Bergara, Aitor Maiz eta Jon Galarraga. **Behean:** Rafael Oiarbide, Idoia Azpiroz, Olatz Gonzalez, Naiara Altuna, Ainitze Sala, Amaia Garmendia, Mikel Ruiz de Zuazo, Jon Arrondo eta Ainhoa Imaz.

ARTANO
Arrandegia



Festa onak pasa!!!

☎ 943 88 24 44

Uhaitz, 2

LAZKAO

MIKEL
OPTIKARI
OPTOMETRISTA
DIPLOMADUNA
UKIPEN LENTEN
EGOKIERA

OPTIKA
Elosegi, 48
☎ 943 88 09 35
LAZKAO



ARAKAMA HARATEGIA

San Prudentzio

☎ 943 88 33 52

Uhaitz

☎ 943 88 93 14

LAZKAO

OSTAISKA
Goxoki denda

- ✕ Goxokiak
- ✕ Fruitu lehorrak
- ✕ Izoziak

Elosegi, 2 LAZKAO

ANDERE
USA INDEGIA

- Depilazioak
- Solarium-a

Gurutze, 3

☎ 943 88 30 02

LAZKAO

BURDINDEGIA

GVREA

Madalena, 2

Tfnoa.: 943 88 19 95

LAZKAO

HORNITEGI

LANABES ETA
HORNIGAIK

SUKALDE TRESNERIA

PIPAS
JATETXEA

*Jaunartze, bataio edo edozein
ospakizunetarako aukera egokia*

Albitxu baserria ☎ 943 88 08 05

LAZKAOMENDI

MUNDUATE ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

✓ JAUNARTZERAKO BITXI AUKERA
HANDIA: BELARRITAKOAK, ERAZTUNAK,
ERA GUZTIETAKO JOKUAK, ZIGILU-
ERAZTUNAK, ESKUMUTURREKOAK,
ESKUMUTURREKOAK IDENTITATEAREKIN,
LEPOKO KATEAK GURUTZEAREKIN,
TXAPAK, DOMINAK, e.a.

✓ EZKONGAIENTZAT DISEINU
EZBERDINEKO EZKONTZA-ERAZTUNAK

✓ MARKA EZBERDIN ETA PREZIO
GUZTIETAKO ERLOJUETAN AUKERA
ZABALA.

BIXITA GAITZAZU ETA GERO
ERABAKIKO DUZU!

1883 URTEAN SORTUTAKO ETXEA

Kale Nagusia, 1-2 ☎ 943 88 12 72
ORDIZIA



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - **BERGARA**
J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - **ARRASATE**
J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - **ORDIZIA**

VOLKSWAGEN LUPO
kotxe baten zozketa!!
Bai, zure ikusmenak
ondo dio :

**VOLKSWAGEN
LUPO**
zoragarri bat!!



5.000 PTAS EROSKETA RAKOITZEKO TXARTEL BAT



Eta ordaintzeko ordain, abantaila ugari :
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik
erosteko modurik errazena.
• Ordaintsita 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko
modua izango duzu, batere errekaratu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB"-
PROGRAMAKO
PUNTUAK

VOLKSWAGEN LUPO BATEN ZOZKETA

belén

*Zure ezkontza zerrenda prestatzeko gustoko
gauza ugari aurkituko dituzu*



Urdaneta Kalea, 24 eta 25

☎ 943 16 22 87

ORDIZIA